


ANTONIO ZAVALA, S. I.



GAZTELU BERTSOLARIA



AUSPOA LIBURUTEGIA

G A Z T E L U

BERTSOLARIA

AUSPOA LIBURUTEGIA

61

COLECCION AUSPOA

Administración: **Plaza de Santa María, 2 - Tolosa**
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612

Dirección literaria: **Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.**
Estudios Universitarios - Mundaiz - San Sebastián

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 280 pezeta Atzerrian: 380 pezeta
Ongilleak: 500 " Ale bakarra: 35 "

ANTONIO ZAVALA, S. I.

GAZTELU

BERTSOLARIA

AUSPOA LIBURUTEGIA

1966

D. L. S. S. 912/66

**IZARRA - Peña y Goñi, 13
SAN SEBASTIAN - 1966**

ARKIBIDEA

GAZTELU BERTSOLARIA 9

ITZETIK ORTZERA

Gaztelu'ko Gorri 15

Aintzira'ko Exteban 22

Gazteluren anaia 24

Gaztelu ta garai artako bertsolariak 27

Galai gazte ta mutilzar 42

San Juan eskean 51

Gaztelu ta Pello Saikola 55

Parrandan 59

Egiak 70

BERTSO-PAPERAK

(1902) Bilbao'ko Estropadari: «Milla bederatzi eunerekin – gañera beste bi urte...» 83

(1903) Bertso Berriak: «Bertso berriak jartzera nua – ejenplo eder batian...» 90

(1905) Bertso Berriak: Orioko Misioarenak: «Gipuzkuako erri polit bat – emen daukazu Oriyo...» 97

Bertso Berriak: «Erreparua jarri zaiozu – paper ontako gauzari...» 105

(1919) Bertso Berriyak Antonio Elizalde'k jarriyak: «Donostiyatik Oriyora-ko – bertsuak dituzte jarri...»	109
(1921) Fernando Aranburu ta Gaztelu	116
(1925) Bertso berriyak aurtengo estropari jarriyak: «Milla ta bederatzi eun da – ogei ta bostgarrenian...»	121
(1928) Bertso Berriyak: «Milla ta bederatzireun da – ogei ta zortzigarrena...»	128
(1930) Bertso Berriyak: «Bertso berriyak orra ipiñi – tokatutzen dan moruban...»	134
Ezkontza galdua	140

GAZTELU BERTSOLARIA

Gaztelu bertsolaria, “Juan Bautista de Urquía y Portu”, Aginaga’ko partean jaio zan, Gaztelu baserrian, 1880’gn. urteko Apirillaren 30’an, arratsaldeko bostetan. (1)

(1) “En el barrio de Aguinaga, correspondiente a la provincia de Guipúzcoa, obispado de Vitoria, a primero de Mayo de mil ochocientos ochenta, yo D. José Ramón de Orendain, Vicario de la Iglesia de San Francisco de Asís, filial de la parroquia de Usúrbil, bauticé solemnemente á un niño, que nació el día antecedente a las cinco de la tarde, hijo legítimo de D. José Eugenio de Urquía, natural de Usúrbil en la provincia de Guipúzcoa, labrador, y de Doña María Manuela Portu, natural de Usúrbil; siendo sus abuelos paternos D. Juan Bautista de Urquía y Doña Josefa Felisa de Zaldúa, naturales el primero de Usúrbil y la segunda de Amasa; y los maternos D. José María Portu, natural de Usúrbil, y Doña Juana Josefa de Múgica, natural de San Sebastián. Se le puso por nombre Juan Bautista; y fueron sus padrinos D. Juan Bautista de Urquía, natural de Usúrbil, casado, labrador, y Doña Francisca Antonia Portu, natural de Usúrbil, soltera, labradora, á quienes advertí el parentesco espiritual, y obligaciones, que por él contrahen; siendo testigos D. José Ignacio Bengoechea y D. Pedro Arrillaga,

Gaztelu baserria toki aldatu dago, Saikola ballara baño goraxeago, Aginaga ca Orio bitartean, bi erri auetara bide berdintsu, iru bat kilometro, duala.

Zortzi senide izan ziran: Juana Josefa, 1866/X/18'an jaioa; Maria Bautista, 1868/X/30'an jaioa; Maria Martina. 1870/V/4'au jaioa; Jose Frantzisko, 1873/V/11'an jaioa; Maria Esteban, 1875/IV/14'an jaioa; Mikaela Inazia, 1878/XI/11'an jaioa; Batista, gure bertsolaria, ta Juana Inazia, 1882/X/30'an jaioa.

Arreba bat oso txikitan izan zan; arreba gazteena, berriz, Juana Inazia, 21 urterekin, pulmoniaz gaixotuta, 1904/VI/17'an.

Iru arreba kanpora esposatu ziran. Beste iru senideak, Jose, Batista ta Mikaela, bi anaiak eta arreba bat alegia, jaiotetxean gelditu ziran beren denbora guzian, iñor ere ezkondu gabe.

Batista, gazterik xamar asi zan bertsoan. Emezortzi bat urte besterik etzuala ere, eraman izan zuten eztaietara bertso kantatzera.

naturales de Usúrbil, labrador el primero y sacristan de esta Iglesia filial el segundo. Y para que conste extendi y autorice la presente partida en el libro de bautismos de esta Iglesia filial, fecha ut supra. D. José Ramón de Orendain, Vicario.

(Aginaga'ko amargarren bataio-liburua, 261'gn. orri-aldean).

Asko kantatu zuan bere denboran. Kantu-lagunak, Pello Errota, Txirrita, Olegario, Aintzira, Errikotxia, Itxaspe, Oloki ta abar izan zituan. Berak amabost bat urte zuala il zan Udarregi, ta nekez egingo zuan onekin saiorik.

Gazteluren ama, 68 urterekin il zan 1909/III/7'an, gripez, elizako agiriak dionez, eta pulmoniaz, Gazteluren illobak esaten duenez. Aita, berriz, 79 urterekin il zan, 1919/I/4'an.

Liburu ontan jarri ditugun bertsoak, bi motatakoak dira: aotik aorakoak eta pape-retakoak. Aotik aorakoak erriak emanak dirala, esan bearrik ez dago; ta besteak, noski, bertso-paperetatik artuak. Auek danak, Orio'ko Misioarenak izan ezik, Gazteluren izenik gabe daude. Bañan, beste askotan bezela, erriak, Gazteluren zenbait jarri-aldiren gaia ez-ezik, oietako bertso ta puntu batzuk ere eman dizkigu. Ta eldu-bide onekin arkitu degu bertso-papera gure artxiboan, baita pozik asko apartatu ere, Gazteluren liburu ontan argitaratzeko.

Bañan *Auspoa*'ren au baño leenagoko liburuetan ere, bada argitaratua Gazteluren bertso ederrik asko: "Ezkontza Galdutako Bertsoak" deritzaionean, bertso-paper bat, "Abiyatu naiz asunto bati — bertso berri-

yak jartzeko” asten dana, eta artean zeñek jarria zan ez genekiana (Auspoa, 15, 111); Txirritaren liburuan, berriz, aotik aorako zenbait bertso, Gazteluk eta biak alkarrekin kantatuak (Auspoa, 18-19, 112-121); baita “Pello Errotaren Itzala” deritzaionean ere (Auspoa, 49-50, 74).

Ofizioz, arotza zan Gaztelu. Au aitatzean, onela esan ziguten Aginaga’ko baserri batean: “Ara: eskallera auek Batista zanak egiñak dira!”

Bañan inguruko baserrietan ez-ezik, Donostian ere jardun izan zan lanean: sei urte egin zituan Lizarriturri’ren fabrikan, arotz-lanetan.

Gaiñontzean, zer esanik asko ez dago itzaurre ontan Gazteluren bizitzaz. Onen gertaerak, umorea, ateraldiak eta ibillerak liburu ontan arkituko ditu irakurleak, eta ori da Gazteluz esan ditekenez guzia.

Gazterik xamar il zan. Biotzetik makal-antzean zebillen. Orregatik etzan bertsoatera atera izan azkeneko sei-zazpi illabeteetan. Il zan bezperan, jatenetako belarra ebakitzzen aritu zan. Etxera etorri ta oiera joan zan. Illoba, bera ere etxera sartu zanean, pixka bat arritu zan osaba ordu artan oieratzeaz. Andik puska batera, antsi bat entzun zuan. Osabaren gelan sartu ta kontu-

rik gabe arkitu zuan. Medikuak buruko atakea zuala esan zuan, *hemorragia cerebral*, eta etzegoala ezer egiterik.

Ogei ta lau ordu iraun zuan. Etzitzaion konturik etorri. Biaramonean, arratsaldeko zortzi t'erdietan, poliki-poliki il zan, bate-re miñik edo nekerik gabe, 54 urterekin. Eguna, 1934 urteko Abuztuaren 10'garren zan. (2)

Anaia, Jose, bi urte leenago illa zan, 1932

(2) "En Aginaga de Usúrbil, Provincia de Guipúzcoa, Diocesis de Vitoria, a once de Agosto de mil novecientos treinta y cuatro, yo, el infrascrito Presbítero, Cura Ecónomo de la Iglesia parroquial de San Francisco de Asís, mandé dar sepultura Eclesiástica al cadaver de Don Juan Bautista Urquia Portu, hijo de Don Eugenio y Doña Maria, natural de este barrio, de cincuenta y cuatro años de edad, de profesión labrador. Falleció según certificación facultativa, a las ocho y media de la noche del día anterior, en la casa Gaztelu, de esta parroquia, a consecuencia de "hemorragia cerebral". En el acto de fallecimiento se hallaba soltero. Recibio los Santos Sacramentos de Penitencia y Extrema Uncion administrados por el que suscribe. No consta haya otorgado testamento. Se le hizo el oficio de sepultura y ha sido inhumado en este día en el cementerio de este barrio en presencia de los testigos Don Demetrio Torregarai y Don Evaristo Lizaso, de esta vecindad. En fe de lo cual lo firmo fecha ut supra. Juan A. Lasa. (Aginaga'ko bigarren eriotz-liburua, 106'gn. orri-aldean).

urteko Abuztuaren 7'an, 59 urterekin. Etxeko arreba, berriz, 1959/XII/28'an il zan, *tronconeumoniaz*, 81 urterekin. (3)

(3) Itzurre onetako argitasunak, Aginaga'ko elizako liburutatik artuak, edo Gaztelu baserrian bertan bizi dan illobak emanak dira.

ITZETIK ORTZERA

GAZTELU'KO GORRI

Gazteluren osaba ta aitajauna zan "Juan Bautista de Urquía y Zaldúa" ere bertsolaria zan. Gaztelu baserrian bertan jaioa zan.

Arpegiz eta illez gorri xamarra zalako, Gaztelu'ko Gorri esaten zioten izengoitiz.

Erri-plazetan eta Donostia'ko Teatruan maiz xamar egin oi zuan bertsotan, kantulagunak Xenpelar, Pello Errota, Udarregi, Joxe Bernardo Otaño, Olloki ta abar zituala.

Esan genezake, beraz, ponteaz izena ez-ezik, bertso-etorria ere osabak erantsi ziola illobari.

Donostia'n bizi izan zan denbora askoan, Esterlines kalean. Andrea bazuan, bañan seme-alabarik etzuten izan. Ta il ere, Donostia'n il zan.

* * *

Batzuek diotenez, onako bertso aukerak Pello Errota ta Gazteluk alkarri botiak dira;

beste batzuek, herriz, Udarregi ta Gaztelurenak dirala diote. Bigarrena Gaztelurena da, bañan lenengo ortan dago zalantza:

Adi zak, i, Batista,
Gazteluko Gorri,
len e jakingo dek ik
orrenbeste herri:
orrako neska gazte
begi urdiñ ori,
ez al aiz akordatzen?
kiñuka ai zaik iri.

Gazteluk:

Ementxe natxiok ni
korroko onduan,
ez ibiltziagatik
askoren moduan;
ikusten ez nuela
uste al zenduan?
disimuluan bafia
begira neguan. (4)

(4) Peña anaiak, Etxaiz baserria, Orio.

Azpeitia'n, ez dakit zeñi, beste onela jaso nuan:

Aizazu, nere lagun Gazteluko Gorri,
zu baño listuago dezu Udarregi,
alboko dama gazte begi urdiñ ori,
etziñan akordatzen, kiñuka ai zan zeuri.

Gazteluk:

Neu ere emen nago jendian korruan,
ez ibilliagatik askoren moduan,

* * *

Onako bertso au ere, Gazteluko Gorrik kantatua omen da:

Alper-alperrik ari zerate
Gaztelu Gorri tentatzen,
Igeldo aldeko neskazarrikan
etzait neri gustatzen;
oiek nola ba jakingo dute
gizonarik gobernatzen?
bai sardin zarren bat kiskali edo
taluen batzuk erretzen. (5).

* * *

Onako bertso auek, Xenpelar eta Gaztelu'ko Gorrik alkarri kantatuak dira. Azkue'ren *Cancionero Vasco'tik* artuak ditugu, 756'gn. orri-aldeetik. Berak Aginaga'ko Bautista Urkia'ri artuak zituan. Gaztelu osaba-illobak onelaxe zituzten izen-deiturak. Bietako batek eman zizkion, beraz, Azkue'ri bertso auek. Irakurlea berealaxe konturatu-

ez nitzala akordatzen uste al zenduan?
disimuluan baño begira neguan.

Beste onela ere jaso izan det:

Aizak, i, mutil zarra, Gazteluko Gorri,
ik antz emango diok ainbeste gauzari,
orrako neska gazte begi urdiñ ori,
ez al aiz akordatzen? kiñuka ai zak iri.

Bigarrena: 1: Neu're ementxe nago.

(5) Martin Larrañaga, Larrume-aundi baserria, Azkoitia.

ko danez, luze xamar daude zenbait puntutan. Etzituzten, guk uste, orrela kantatuko. Bañan Azkue'k, folklore-biltzalleak bear duanez, jaso bezela emango zituan.

Gaz-te-lu, as-pal-di-yan e-tzai-tut i-ku-
 -si, us-te det za-bil-tza-la ni-gan-dik i-ge-
 -si. I-run al-di-an la-nen o-men zi-ñan a-
 -si, jan da e-dan ba-r. ein ga-lan-ki i-ra-ba
 -zi: kan-pu-an da-bil-tza-nak ez-ta-bil-tza-gaiz-ki.

1/ Gaztelu, aspaldion
 etzaitut ikusi,
 uste det zabiltzala
 nigandik igesi.
 Irun aldean lanean
 omen ziñan asi,
 jan da edan bapo egin,
 galanki irabazi:
 kanpoan dabiltzanak
 eztabiltza gaizki.

- 2/ Askok uste du ondo dala
kanpoetan dana,
jornalak badaukate
diran ainbat fama;
gaiñera lagunakin
ipini nai broma,
mantendutzeak ere
parte bat badama,
azkenerako sobrak
egiten du marra.
- 3/ Amairuna ta amalauna erreal
irabazte'utela
nunnai ikusten ditut
kontari daudela.
Jenteak geiegian
artu zuen gala,
gauza reglakorikan
estimatze'eztala:
orain ere bost batekin
mantenduko al da.
- 4/ Amalauri bost kenduta
bederatzi daude,
erreal bat eskas degu
sagardotako ere.
Gaiñera jai ta egualdi txar
noiznai badirade,
jan-bearra paltatzen
ez orietan ere:
kontu oiek, Senpelar,
probatuta gaude.

5/ Mundu onetan asko
gabiltza txit justu,
au egia esango det,
nai duenak sinistu:
gutxiagoan jardun izan zan
zenbait gizon prestu,
denbora aitako kontuak
ondo ziran aztu:
orain sobratze'eztuenak
sekula izango eztu.

6/ Beti jornalean da
sobratua piska,
ni aurrena naizela
zenbaitxe gabiltza,
tabernetan ugari ere,
bulla eta driska,
nekez irabaziak
kastatzen errez da,
irutik bi berenik
kitatsu gabiltza. (1)

(1) Auetatik bertso-pare bat, lenengoa ta laugarrena, izengoitia "Andoain" duan Sorabilla'ko Federiko Otegi'ri Usurbil'ko Felix Aizpurua'k jaso zion, era ontara:

1/ Gazteluko Gorriya, nun ote aiz bizi?
aspaldiko denboretan ez aut ikusi;
Irun'go arrobi batian omen intzan asi,
gutxi gastatu eta asko irabazi...
aurten jornalera etzabillek gaizki.

4/ Amalauri bost kendu, bederatzi daude,
errial bat gutxitxo deu sagardotako're;
egualdi txar edo jaiak noiznai badirade,
tripak igualtsu biar du alakuan ere.

* * *

Beste bertso-pare bat onela eman ziguten Martin eta Jose Peña'k, Sarobe, Orio:

Amalauri bot kenduta bederatzi daude,
errial bat gutxigi sagardotako're;
jai ta egualdi txarrak noiznai badirade,
jan-bearran paltik ez orietan ere,
Xenpelar, kontu oiek probatuak gaude.

Nezesidade gabe basoka asko ustu,
orrela ibiltzen da zenbait gizon prestu;
len dauden jornalakin dabillena justu,
orain sobratze'eztunak sekula izango eztu.

* * *

Beste era au, berriz, Aita Donosti'ren paperetatik artua da. Ez du esaten nun jaso zuan. Bañan Baztan aldeko euskera senti da emen.

Zabaldu ziran, beraz, araño ere bertso auek. One-la diote:

ERRENTERRIATIK IRUNERAT LANERAT ETORRI TA XENPELAR BATIXTARI

- 1/ Kexo, Batixta, etzaitut aspaldian ikusi,
zeren elkarren ganik apart geran bizi;
gure herria huntarik joan zinen ihesi,
Irun aldian hortan bai lanian hasi,
jan ta edan ondo egin-ta galanki irabazi.
- 2/ Irabazi handiak, sobratuak pixkak,
ni aurrena naizela zenbeit bagabiltzak;
lagun arterat geroz kanta edo drixka,
ostatuan sartuz geroz gastatzen errex da,
hirutarikan biek igualtsu gabiltza.
- 3/ Neonek sumatu ditut kontari daudela
amalauna erriel jornala dutela;
eta gañera bortzez mantentzen direla,
gizona aberasten ez duk gaitz horrela.
- 4/ Amalauri bost kendu, bederatzi daude,
erriel bat ezer ez da sagardotako're;

AINTZIRA'KO EXTEBAN

“Esteban de Bengoechea y Urquía” Gazteluren osaba zan, ta bertsolaria bera ere.

Izengoitiz “Aintzira” esaten zioten, Aintzira-zarra baserrian bizi zalako. Baserri au Usurbil'ko partean dago.

Ardiak ere bazituan eta artzaintzan ibiltzen zan.

Il ere, Aintzira-zarra il zan. 1936 urteko Azaroaren 4'an, 82 urterekin.

Ona emen bertsolari onen bildu ditugun bertsoak:

* * *

Usurbil'ko Arburu baserrian laia-apustua izan omen zan. Jokatu ondoren Txirrita ta Aintzirako Exteban —an baitziran— bertso-tan asi ziran. Txirritak kantatu zuan aurreneko, ardiengatik zerbait esanaz. Bertso onekin erantzun zion Extebanek:

astian hegoaldi txarrak, jaiak noiznai dire,
jan beharrak segitzen halakoan ere...
Xenpelar, horiek guziek frogaturik gaude.

Ta bukaeran oar gogoangarri au jarria du Aita Donostik:

“Orai dela 70 bat urthe eginak dire pertsu horiek, Frantzia eta Espani arteko treina-bide giten hari zirela; orduko jornal handia zen hori...”

Txirrita, itzegin zazu
poliki-poliki,
ardiak nola kuidatu
artzaiak badaki:
udaran itzala ta
neguan eguzki...
nere kuidadorikan
etzazu eduki. (1)

* * *

San Juan bezpera batean eskean ibilli ondoren, biaramonean, San Juan egunean alegia, Andu baserrian izan zuten merienda.

Bi bertsolari ziran an: Gaztelu, ta Aintzira'ko Exteban.

Meriendatu ondoren, Gaztelu neskatxa bat etxera laguntzera joan zan, eta, biak bidean zijoazela, kuadrillarekin eskean ibilli nai izan etzuten iru mutil zeletan jarrita zeudela ikusi zuan. Bueltan Andu'ra etorritakoan, onela bukatzen zan bertsoa kantatu zuan:

iru lagun or billatu ditut
muturra dana beztuta,
alare lasai etorri naiz ni
lasta-zuziya piztuta.

(1) Kristino Arruti Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren billoba, Andu baserria, Orio.

Ta Aintzira'ko Extebanek onela erantzun
zion:

Nik ongi ezagututzen ditut
zu bezelako arrayak,
Batista onek ikusi ditu
gaur ixtillu gorriyak;
entregatuta etorri dala
eraso in diyo larriyak,
neskatxa bestek arrapatuta
gero onentzat arriyak.

Ta Gazteluk:

Dan bezelaxe esanda ere
milla eztiyo inporta,
neskatx eder bat nik eraman det
gerri-gerritik elduta;
aziyo txarrik eztiyot egin
berak ongi artu nau-ta,
naiko gazta're eman dit neri
anaia artzaia du-ta. (2)

GAZTELUREN ANAIA

Gazteluren anaia ere —Joxe zuan izena—
bertsotan poliki egiten zuana zan. San Juan
eskean askotan ibilli zan, koplari bezela.
Erri-plazetan, berriz, oso gutxi edo batere ez.

(2) Jose Antonio Irastorza, Itxaspe baserria,
Orio.

Urte batean kopla au bota zuan Arizmendi
baserrian:

Amairuan San Antoniyo,
oitalabian San Juan,
Jainkuak bestek apenas daki
emen zer neskatx dagan.

Garai artan, San Juan eguna, leen beti
jai izaten zana, aste-eguna jarri zuten. Jo-
xeri etzitzaion ori gustatu, ta onako kopla
au kantatu zuan Arizmendi baserri ortan ber-
tan:

Aita San Juan asarre dago
bere eguna kenduta,
nere iritziyan gañera arrek
arrazoi-palta ez du-ta. (1)

Ta etxero kantatzen zuan kopla, au omen
zuan:

Ama Birjiñak esaten diyo
Ama Santa Isabeli,
guri biriak erakusteko
nundikan nora ibili. (2)

* * *

(1) Kopla pare au, orain Orio'n bizi dan eta Ariz-
mendi baserri ortan bertan jaioa dan Jose Ramon
Esnal'ek emana.

(2) Juan Joxe Lizarreta, Aginaga.

Bezperan eskean ibillita, San Juan egun batean meriendan ari zirala, onako bertso au kantatu zion Jose Gazteluk Aia'ko soñu-jotzalle bati:

Ez degu bizi biar
alkarren gorrotoz,
gerra baño pakia
obe degu askoz;
Agiña alde ontara
maiziago atoz,
gonbiatuko zaitut
botil bat sagardoz. (3)

* * *

Donostia'ra joan zan batean, berriz, ango batzuek, anaia bertsolaria zuala, ta bera ere ala izango zala, ta bertso bat kantatzeko ta kantatzeko asi zitzaizkan; besterik ez bazan ere, aldrebes bederenikan kantatzeko. Pakerik etzioten ematen, ta au kantatu zuan:

Bertso bat bota biet,
Kristok berak barka,
esklaproi ta zapata,
bota ta abarka,

(3) Juan Jose Lizarreta, Aginaga.

biboliñ ta pandero,
gitarra ta arpa,
zezena muturka ta
txerriya adarka,
gaur jarri biar degu
sekulako marka. (4)

GAZTELU TA GARAI ARTAKO BERTSOLARIAK

Gazteluk, 17 urte zituala, premiyotara len-
biziko joan zanean kantatua:

Emen bitu gerade
predikadoriak,
kolejiyuan bate
ibilli gabiak;
noski egongo dira
ni baño obiak,
juzgatuko gaituzte
autoridadiak. (1)

* * *

(4) Jose Ramon Esnal, Orio, Arizmendi baserrian
jaioa.

(1) Jose Ramon Esnal, Orio, Arizmendi baserrian
jaioa.

Gaztelu eta Pello Errotak bein batez alkarri boteak:

Gazteluk:

Gauz bat esan biaiot
Pello Errotari,
beste gizonik zala
uste nuan ori;
bere auzoko batek
esan ziran neri
nola ukatu ditun
iru gurdi gari.

Pello Errotak:

Bat daguan lekuan
an dago bestia,
ara Pellok orrentzat
errespuestia:
zarra bajatu nairik
asi da gaztia,
orrek merezi luke
bizkarra austia.

Gazteluk:

Bein ere egin al dizut
ondo ez dan gauzik,
dakitena aitortu
egitia baizik?

esan ez baziraten
ez nekiyen kasik,
nola ibilli zeran
pagatu nai ezik. (2)

* * *

Urte batean Pello Errota Usurbill'en zan
erriko festetan; Gaztelu ere bai noski. Pello
oso aitondua zegoan; Gaztelu, berriz, mutil
gazte-lerdena. Alako batean Pellok Gaztelu
txoko batean neskatxa batekin ari zala ikusi
zuan, eta ingurura arrimatzen asi zan. Ta
Gazteluk, Pello zetorrela ikusi zuanean, one-
la kantatu zion:

Lenago ere eman nizun nik
gauza onen abisua,
orduan ere etziñan jarri
arretaraño gozua;
gu oraindikan soltero gaure,
zu aur batzun gurasua,
onera zertan etorri zera,
aiton inbiriyoa? (3)

* * *

(2) Sebastian Salaverria, Oriamendi, Aiete, Donostia.

(3) Migel Erauntzeta-Murgil, Murgil baserria, Igeldo.

Oloki bertsolariak, Manuel ta Mateo, Usurbil'ko Artikula-txiki baserrikoak ziran.

Udarregiren denboran, Manuel ori zan Donostia'n bertso-festa bear zanean, bertsolariak billatzen zituana. Bertsotan onena ez bazan ere, eskola pixka bat bazualako-edo, berari bialtzen zioten karta. Onela zion berak, egun batez:

Karta bat etorri zaio
Manuel Ollokiri,
probintziyan billatzeko
iru bertsolari;
auzotik artu nuban
Juan Jose Udarregi...

Manuelen seme bati Martin zeritzaion, eta Martin onen semea izan zan Mateo Oloki bertsolaria.

Mateo onen denboran, Donostia'ko Jose Zapirain zan bertso-festetan zuzendari egiten zuana. Onek, bertsolariak billatzeaz gañera, teatroan asierako ta despeidako bertsoak kantatu bear zituan; baita bertsolariai gaiak eta puntuak eman. Ta Jose Zapirain au il zanean, Mateo Oloki jarri zuten aren orde, Donostia'ko Erriko-etxeko enpleatua baitzan.

Gazteluk, ordea, ezin eraman izan zuan,

Oloki zuzendari izatea, ura beira baño bertsolari eskaxagoa izanik. Eta asarretu egin zitzaion. Txirritak esaten zion:

—Ez kasorik egin gauza orri. Oiek gu baño gizon zuzenagoak dituk. Guk ez diagu eskolik. Guretzat alperrik dituk karta guziak. Ez diagu orretarako balio. Guri geren jornaleta pagatu ezkerro, or konpon ditezela beste guziak.

Bañan Gazteluk asarre segitu zuan Mateorekin. Itzegin bai, egiten zuten, bañan kantatu etzuten geiago alkarrekin egin. (4)

* * *

Bein batean, bertsolari mordoxka bat juntatu omen zan Amezketa'n; Usurbil'dik bi, Oloki ta Gaztelu. Artean alkarrekin asarretu gabeak izango ziran. Ango bat asi zan kantuan, eta desapiyoka asi ere. Orduan Gazteluk, txanda etorritakoan, onela kantatu zuan:

Jendia pranko juntatu gera
bateko edo besteko,
motiboren bat eman al degu
desapiyoka asteko?

(4) Mateo Landa Alkain, Udarregiren billoba, Igeldo.

Beste tokitan bertsolariyak
zanik etzuten usteko,
bi usurbildar naikuak gera
emengo ogei austeko. (5)

* * *

Bein batean, Gaztelu, Txirrita ta Pello
Errota Zizurkillen ziran bertsotara etorriak,
eta aurrena Gazteluk kantatu zuan:

Lengo jayian etorri nintzan,
emen pasa det astia,
mundu guziyak ezagutzen nau,
ni naiz Gaztelu gaztia;
Txirrita daukat aldamenian,
Pello Errota bestia,
igualian naiago nuke
oiek aurrena astia. (6)

* * *

Bein batez, onela bukatzen zan bertsoa
kantatu omen zion Gazteluk Ernani'ko Olegario
bertsolariari, Usurbill'en:

(5) Pello Saikola bertsolaria (Pedro Aranburu),
Orio.

(6) Bautista Cortajarena, Asteasu, Pello Errota-
ren billoba.

sartua omen dago
Tercera Ordenian,
granuja ederra dabil
santu-paperian! (7)

* * *

Bertso auek, Olegariok eta Gazteluk kantatuak dira, Aginaga'ko Juan Joxe Lizarreta'k dionez; bertako Bartolome Atxega'ren ustez, berriz, Txirritak eta Gazteluk kantatuak. Bertsoak, Juan Joxek kantatu zituan bezela jartzen ditugu emen, Atxega'ren aldaketak orri-aldearen beeko aldean ipiñirik. *Baserritarrek gera gu* kantuaren doña dute.

Olegario edo Gazteluk:

Nai badek danak malkaitzak,
gallenak eta eskasak,
kontrariyoric azaltzen bazak
obe dek eta barka zak,
bestela launtza eska zak.

Gazteluk:

Markatubakin auziya
ez dago irabaziya;

(7) Manuel Urruzmendi, Arzabaleta, Zubieta, Usurbil. Etzan aurreneko erdiaz oroitzen.

neroni ere lanteri ortan
ez naiz oraintxe asiya,
betor nai duen guziya! (8)

* * *

Itzaurrean esan degun bezela, Gaztelu arotza zan. Egun batez, bere ofizioko lanen bat egiten ari zan, ta, arek bukatutakoan, argiñ batek berea asi bear zuan. Gaztelu patxaraz ari zan; argiña, berriz, aren zai egonez, pazientziya galtzen zijoan. Ala, modu onetan esan zion argiñak:

—Naiago nuke zure abildadea baneuka bertso bat botatzeko!

Ta Gazteluk onela erantzun zion:

—Zuk asi; nik bukatuko det!

Ta argiñak erdia kantatu zuan:

Batista Gaztelu,
zera nere laguna,
estuasonakin etzazu
galduko osasuna.

Ta Gazteluk onela osatu zuan bertsoa:

(8) Bartolome Atxega'ren aldaketak: 1/1: Pobre eta aberatsak; 1/3: agertzen bazak; 2/1: Juiziyo edo auziya.

Txiki-txikitatikan
zaitut ezaguna,
jaunak, egiten degu
guk e al deguna. (9)

* * *

Bertsotara Bizkaira deitu zuten bein batez. Saioa Enbeita'rekin egin zuan. Ondoren, pelota-partidua zan, bañan Gazteluk etzuan gogo aundirik arako, ezta dirurik asko ere dirudianez, ta bertso au kantatu zion Enbeita'ri:

Egiya esango'yat,
aizak, Enbitia,
etzaidak gustatutzen
gero jardutia;
nai baldin badek ni partidura jutia,
ik pagatu bearko det
nere billetia. (10)

* * *

Jai-goiz batean, Gaztelu Espaldiberri zeri-tzaion Aginaga'ko taberna batean zegoan. Elur-tantoak asten ziran denboralea omen zegoan. Aranburu baserriko gizona ere an zan.

(9) Juan Jose Lizarreta, Aginaga.

(10) Prantxisko Peña, Etxaiz, Orio.

“Zozua” esaten zioten oni. Bertsotan pixka bat egiten zuana zan, ta, goiz artan, kanpoan otz egiten bazuan ere, berak barrena bero-berorik zeukan nunbait, eta etzion Gazteluri pakerik ematen, bertsoa hota ta bota. Au ixilik zegoan, bañan, aren jarioaz asper-tu zanean, bertso bakar batekin ixildu-azim omen zuan, onako au kantatuta alegia:

Edaten dutenian
zerbait edari,
ez diote utzitzen
pakian iñori;
egia dalarikan
gezurra diruri:
negubaren erdian
zozua kantari. (11)

* * *

Donostia'ko teatro batean, zazpi bertsolari ari ziran kantu-lanean, eta saria bakarra zan. Azkeneko bi geratu ziran: Prantzesak (Prantzes-txikiya) ta G a z t e l u. Aurrena Prantzesak kantatu bear zuan, da onela bota zuan.

(11) Bartolome Atxega, Mutiozabal baserria Aginaga.

Bertso onek zer ikusi aundia du Pello Errotaren batekin, azkeneko ziria berdiña alegia. Ikus: “Pello Errotaren Itzala”, Auspoa 49-50, 81'gn. orri-aldean.

Bi biko eta bat bost,
lau ta iru zazpi,
oiek ola dira ta
ez gabiltza gaizki;
gizon bat toriatzen
gaur egin naiz asi...
Españira etorrita
Prantzesa nagusi!

Ta Gazteluk —puntutz aldatzea libre zuten nunbait— onela erantzun zion:

Entendimentu ederra daukat
Jaunari asko kostia,
Euskalerriko jakinduriyan
iru eta bi bost-tia;
naiz dala San Juan de Luz'tikan da
Baionatikan bestia,
frantzes guziyak etorrita're
neretzat ainbat ezta!

Berdin juzgatu zituzten. Berrero kantatze-ko esan zieten, bañan al zan gauzarik zarrrena gai artuta.

Prantzesak onela kantatu zuan:

Bi milla urte pasatu ziran
zeruko atiak itxita,
zenbat anima an ote zegon
linbuetara jetxita!

aiek orduan egongo ziran
beren buruaz etsita,
garai onian egin ziyoten
Salbadoriak bisita.

Ta Gazteluk:

Gure Jainkuak egin zituen
Adan ta Eba aurrena,
lendabiziko gizasemia,
bere emaztia urrena;
oriyek gero sartu zituen
baratza baten barrena,
bañan etzuten kunplitu izan
eman zioten ordena.

Ta besteak baño gauza zarragoa aitatu zualako, Gazteluri eman omen zioten saria. (12)

* * *

(12) Bautista Zumeta, Txokoalde, San Esteban, Usurbil.

Bertso auek ezagunak dira Gipuzkoa guzian, bañan, olakoetan oi danez, desberdintasun askorekin jaso izan ditut. Ona, adibidez, Orio'ko Itxaspe baserriko Jose Antonio Irastorza'k esaten dituan aldaketak: 1/1-2: Iru eta bi bost dira — bost eta bi zazpi; 1/5-6: arrazoi bat nai nuke — emen adierazi; 2/3: nere lagunak badakizute; 2/5: bat datorrela San Juan de Luz'tik; 2/7: Lau milla urtian egon ziraden; 3/3-4: zenbat anima naigabez zeuden — linbo beltzera jetxita; 3/5-6: betiko ala bearko zala — beren artian etsita; 4/5-6: baratza frutez bete-betian — sartu zituben barrena.

Onako bertso auek, bein batez Orio'ko festetan, Gaztelu ta Prantzesak alkarri boteak dira. Zori txarrez, ez dizkigute osorik eman, bat izan ezik.

Gazteluk:

Zuk nola izaten dezun
gauza jakin naia,
alargun txiki auxen da
nere andregaia.

An aurrean alargun bat omen zegoan, eta arengatik esan zuan ori. Prantzesak alargunari itzegiñez erantzun zion:

Itzegin biar dizut
ondradu eta pin,
etzaitela piyatu
askorik onekin;
arrimatu nai luke
bateren batekin,
solterik ezin du ta
alargun batekin.

Orduan onela bota zuan Gazteluk, alargunari itzegiñez onek ere:

..... maite banazu
tori bostekua.

Alargunak, ordea, alde egin zuan plazatik,
gutziz lotsatuta. Ta Prantzesak onela kanta-
tu zuan:

Alargunai kendu'izkazu
bere zentzu danak,
bost bier pagatzen dik
kulpik eztuanak. (13)

* * *

Jai-goiz batean, Gaztelu Orio'n, Arkupeko
sagardotegian, zegoan. Zarauz'ko Rufino Ne-
kazabal bertsolaria ere an gertatu zan, eta
bertsotan asi ziran. Nekabazal'ek, sagardoa
saltzen ari zan neskatxarekin ezkondu bear
zuala esan zuan. Ta orduan Gazteluk onela
erantzun zion:

Beraz egin asmuan zera
zure emaztian jabe,
mantendu ezinda langilleguak
makiñatxo bat badare;
gaur edo biyar etortzen baira
bi edo iru landare,
astian bi egun pasako'izkitek
naiko ogiyik jan gabe. (14)

* * *

(13) Jose Antonio Irastorza, Ixtaspe baserrikoa,
Orio.

(14) Jose Ramón Esnal, Arizmendi baserria, Orio.

Zipoka ari zitzaion bertsolari bati, bertso
au bota zion bein batez Gazteluk:

Gizonak izatia
oinbeste bondade,
gaizki igual aditu
ondo esanda're;
izaten baldin baitu
iru ô lau landare,
egon biarko'ute naiko
talua jan gabe. (15)

Bi bertso auek alkarren antza dute. Ba-
ñan ez du ematen bi modutara jasoan izan
dan bertso bat danik, mami bat Gazteluren
ezpañetan bi alditan loratu dana baizik.

* * *

Donostia'ko Teatroan, San Tomasetan, Txi-
rrita ta Gaztelu kantuan ari ziran. Txirri-
tak esan zuan, bera apaiz egin izan balitz
obeto biziko zala. Ta Gazteluk onela eran-
tzun zion:

Onek tunik'oi jantzi izan balu
beste jaun oriye gisa,
korputza ere aproposa zun
gobernatzeko eliza;

(15) Pello Saikola bertsolaria, Orio.

por si acaso oi egin balitz
praillea edo apaiza,
meza ematen asi baño len
ustuko zuen kaliza. (16)

Onen antzeko bertsoa, Pello Errotak Txirritari botea, irakurleak arki dezake Auspo'an 49-50'garrenean, 86'gn. orri-aldean.

GALAI GAZTE TA MUTILZAR

Onako bertso au, Erniyoko errömerira joan zan batean, Gazteluk neskatxa bati kantatua da:

Mendi ta zelai, etxe ta kanpo,
badaukat abundantziya,
neroni berriz ikusten nazu
mutil ederki jantziya,
oiez gañera etxe koxkor bat
aitona zanak utziya...
deskuirun paltan bazaude a ze
nolako komenentziya! (1)

* * *

Gaztelu ta bere lagun batzuek Ernani'ko perira joanak ziran. Oi zuten tabernan sar-

(16) Pedro Bidasoro, Eguzkitza baserria, Aginaga.

(1) Prantzisko Peña, Etxaiz baserria, Orio.

tuta, neskame berria arkitu zuten. Lagunak, orduan, bertso bat ari botatzeko esan zioten Gazteluri, ta onek era ontara kantatu zion:

Naparrotik onuntza
zera etorriya,
ardandegi batian
neskame jarriya;
estuba gerriya ta
kolorez gorriya,
zu zere Gazteluren
txit zoragarriya. (2)

* * *

Ta andregaiia billatu zuanean, onako bertso au kantatu omen zion bein batez:

Astelenian gobara ekarri
asteartian jotzeko,
asteazkenian, komeni bada,
egualdi ona legortzeko;
osteguna da siñaletuba
berriz entregatutzeko,
Kandelariyoz libre zerade
nerekin pasiatzeko. (3)

* * *

(2) Bartolome Atxega, Mutiozabal baserria, Aginaga.

(3) Pello Saikola bertsolaria (Pedro Aranburu), Orio.

Kantatu ez-ezik, paperetan bertso-sail bat ere jarri zion, bere biotzeko amorioa agertuaz. Bertso oiek geroago arkituko ditu irakurleak liburu ontan bertan.

* * *

Bañan beren tratabidea ondo asi bazuten ere, etziran alkarrekin uztartu. Gaztelu mutilzar gelditu zan; neskaxa, berriz, beste batekin ezkondu zan.

Andik denbora-puska batera, alkarrekin topo egin zuten Iturriotz'en, andregai izandutako ori bere senarrarekin zala. Gazteluk Euskalerra guzian oso ezaguna dan bertso bat bota zion. Ona nola kontatzen duan Basarrik: (4)

“Ernio'rako eguna egokitu ta an izan omen zan Bautista. Ernio'tik beerakoan, Iturriotz deritzaion basetxean sartu omen zan bazkaltzeko asmoz. Lepo-ezurreraño betea omen zegon Iturriotz. Begira jarrita, txoko batean, bere andregai izandakoa an ikusi omen zuan bere gizonarekiñ akeita (kafea) artzen ari zala. Ordurako ezkondu baizan! Joan da berengana, ta ala dio gizonari, bizkarrean joaz:

(4) “Aurrekoen Oroipena”, *Argia* asterokoa, 1935 / I/20.

—Zu, adiskidea: bertso bat kantatzeko libertadea emango al didazu? (5)

—Bai, gizona; emango ez dizut ba!
—erantzun bestea.

Emazteari begira, au abestu zuan gartsuki:

Esan zirazun nekazaritzan
etzenduela etsiko,
denda koxkor bat ipiñi eta
ez ote giñan biziko;
zazpi ministrok beartuta're
ez niñuzula utziko,
kariño piña artu zirazun (6)
baña denbora gutxiko.

Emakumea gorri-gorri gelditu omen zau ta ango jendeak silla ta aulki-gañetan zutik jarrita txalotzen omen zuan Gaztelu”.

* * *

Lenengoarekin uts eginda, etzuan andre-gai berririk billatu. Mutilzar gelditu zan.

(5) Batzuek diotenez, “zure andreari bertso bat kantatzeko libertadea emango al didazu?” galdetu zion Gazteluk. Ta senarrak ez omen zekian bere andreak eta ori galdetzen zionak alkarrekin tratabiderik izan zutenik.

(6) Basarrik *kariño pixkat* jarri zuan; guk *kariño piña* jarri degu, ala esaten baitute toki guzietan.

Bañan bere egoera ontaz bertso asko bota
oi zuan guzizko patxara ta umorean. Ona
emen oietako zenbait:

* * *

Egun batez, bertso au kantatu zion Gaz-
teluk Errikotxia bertsolariari:

Nik uste nuen zure alabakin
esposatuko nitzala,
beregana ni juan nitzaden
zuri agindu bezela;
baña aretxek jarri ziraden
oso kopeta itzala,
ze alutako esan ziñion
parranderua nitzala? (7)

* * *

Beste bertso au ere, Gazteluk botia omen
da nunbait ere:

Neskazar aberats bat
bada Amezketan,
lenguan berarekin
egon naiz izketan;

(7) Praixku Peña, Etxaiz, Orio.

anuntziyua ere
jarri du Gazetan:
iñork artu nai badu
amairu pezetan. (8)

* * *

Arratsalde batez, Gaztelu Orio'ko estazioan zegoan trenaren zai. Lau neskatxa gazte an bertan pasiatzen zebiltzan. Bertsoa botatzeko ta bertsoa botatzeko asi zitzaizkion. Ta Gazteluk onela kantatu zien:

Ezkondutzeko deia
biaiet otsegin,
beti utsan peskisan
ibilli ez nadin;
mutilzarren izena
kendu nai nuke bein,
neretzako ona da
ôtako edozein.

Ta, aietako bat ederrenetzat jota, urrena onela kantatu zuan:

Bestiak beste dirala
au da dotoria,
gezurretan ez naiz ari,
bistan ageri'a;

(8) Manuel Urruzmendi, Arzabaleta, Zubieta, Usurbil.

asi ezkeru eman
bakoitzai beria,
kasik-kasik ematen du
Reina Victoria. (9)

* * *

Urte batean, Usurbil'ko festetan, Txirri-
ta, Prantzes-Txikiya ta Gaztelu ziran ber-
tsotan. Ari zirala, ia ezkondu gabe zertan
zegoan asi zitzaizkan Gazteluri bete biak,
naiz auek ere mutilzarrak izan. Ta Gazteluk
onela kantatu zien bertso bat:

Izugarriyak entzunakarren
pazientziyan ni nago,
andre artu-be berrogei urte
ditutelako igaro;
munduba ontan ez naiz bakarrik,
lagunak bâuzkat geiago,
Jesukristo're solterua zan,
neria al da milagro? (10)

* * *

Gazteluk, Orio'ko Marrota sagardotegian.

(9) Praixku Peña, Etxaiz, Orio.

(10) Migel Erauntzeta-Murgil, Murgil baserria,
Igeldo.

bertako nagusi zan Jose Agustiñi bein batez
kantatu zion bertsoa:

Berroi t'amairu urte
daukat eraria,
badakit ez nagona
mutil dotoria,
nai dutenak ikusi
bistan agiri'a,
Joxe Austin, eman beiak
arreba Maria. (11)

* * *

Beste batean onako au kantatu zuan Gaz-
teluk:

Berrogei eta sei urte dauzkat,
ez nago mutil gaztia,
ontara ezkeroz obeko degu
olako lanak uztia;
mundu onetan esposatuta
guziyak bizi ezta...
nik andregai bat moja juana det,
gosiak il zun bestia. (12)

* * *

(11) Kristino Arruti Lertxundi, Errikotxia bertso-
lariaren billoba, Andu baserria, Orio.

(12) Domingo San Sebastian, Etxaiz baserria,
Orio.

Zori txarrez ez digute eman bertso onen
erdia baizik. Aurrekoaren antza du:

bein andregai bat izan nuben da
bera gosiak il zian,
a zer kopeta jarriko diran
Josefetara eltzian! (13)

Orduan bertsoan Gaztelurekin ari zan
bertsolariak, Patxiku kamineruak, onela bu-
katzen zuan bertsoa kantatu omen zion buel-
tan:

ura etzuan gosiak ilko
baldin mantendu bazendu.

Ta Gazteluk orduan:

Garai aietan ibiltzen nitzan
ni lanian Antigua'n,
eguneko amalau errial
jornala irabazten nuan;
goizian asi zurrutian da
baxo-erdiyak traguan...
neronentzako juxtu-juxtu ta
nola mantenduko nuan? (14).

(13) Maria Josepa Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren alaba, Andu baserria, Orio.

(14) Ez nuan apuntatu zeñi jaso nion.

SAN JUAN ESKEAN

“Gaztelu amar bat urtez ibilli zan San Juan eskean. Agiñaga’tik atera eta Saikola’ra, andik Koxkollu’ra, andik Gorosti’ra,... Gure etxera, Artikula-Aundi’ra, ere etortzen ziran.

Bañan baserriz-baserri gau guzian ibiltzen ziran eta aspertu egin zan Gaztelu. Andik aurrera iñori etzion agindu.

Beste urte batean, San Juan baño egun batzuk leenago, Gaztelugana joan ziran onen bi lengusu ta beste lau bat lagun gazte, txaketa azpian zato-ardoa arturik.

Gaztelu belardian arkitu zuten; onela galdetu zion lengusu batek:

—Erakutsiko al dizkiguzu San Juanen alabantzak?

Ta Gazteluk:

—Aurrena beintzat zato ortatik trago bat ekatzak!

Erakutsi zizkion alabantzak, eta oiek kantari ibilli ziran San Juan eskean”. (1)

* * *

Gazteluk erakutsitako San Juanen ala-

(1) Mateo Landa Alkain, Udarregiren billoba, Igeldo.

bantzak, onako auek izan ditezke. Aspalditik, Gaztelu baño lenagotik ere, Usurbil inguruan kantatzen diranak, auek dira beintzat:

“Jesus, Maria” esan biar det
lendabiziko itzian,
Aita San Juan sartu dedilla
gurekin beon etxian.

Bedeinkatua ta alabatua
da Sakramentu Santua,
pekatubaren mantxarik gabe
zeña dan kontzebitua

Gaur da San Juan Bautista eta
biyar beraren eguna,
mundu guziko katolikuak
zelebratutzen deguna.

Etorri ezpagaña esango zuben
batek ezpada bestiak:
Usariyua galtzen ari da,
zer dira oraingo gaztiak?

Illundu baño lenago asi,
erretiratu goizian,
gure aitonen aitonak ere
ola ibillitzen zian.

Usariyo au badakizute
eztala oraingo berriya,
gazte jendia dibertitzeko
Aita San Juanek jarriya.

Urrena, etxekojauna, etxekoandrea ta etxe-
ko senideentzako koplak kantatzen dira. (2)

* * *

Ona, berriz, emen Gazteluk San Juan es-
kean kantatutako zenbait kopla, ez noski gu-
ziak urte batekoak:

Neskatxa batek nobioa Frantzira joana
zuan. Izengoitiz Gorriya zeritzaion mutil
oni; *Guerra Europea*'ko denbora zan. One-
la kantatu zion Gazteluk:

Asi ezkerro botako ditut
kolpe ikaragarriyak,
aspaldi ontan Prantzi aldetik
ze abisatzen du Gorriyak?

Pakia laister eiten badute
frantzes, aleman, rusuak,
oriyek biyak esposatzian
Gazteluk a ze bertsuak!

(2) Bautista Zumeta, Txokoalde, San Esteban,
Usurbil.

Beste baserri batean arrautza-parea eman
zieten, eta Gazteluk:

Ontâ ezkerro alperrik degu
emen kantun jardutia,
lenago ezer ez genduan da
orain xextua betia! (3)

Etxe batean, kopla bota ta bota jardun-
arren, ezer ematen etzietelako, onela kan-
tatu zuan:

Alper gaiztuan ez nauk iyo
San Estebango koxketan,
izugarriyak botako'izkiyat
jarritzen banaiz kasketan! (4)

* * *

Etxaiz baserriko senar-emazte gazteak be-
ren lenengo semea illa zuten, Garagarri-
llaren 19'an, aita Lourdes'en zala. Andik
laugarren egunera, San Juan bezperan, mu-

(3) Ez anuan apuntatu, iru bertso auek zeñi jaso
nizkion.

(4) Juan Jose Lizarreta, Aginaga.

Jose Ramon Esnal'ek (Arizmendi baserria, Orio)
esan zidanez, kopla au Txirritak kantatua da, ta bes-
te modu onetan kantatu ere:

Alper gaiztuan ez gabiltzade
San Ixtebango koxketan,
galantak laister entzun biau
ni jartzen banaiz kasketan!

til gazteak eskean etorri ziran, Gaztelu koplari zutela, ta onek izugarri kopla-pilla ederra kantatu zien, gurasoen konsolagarri, zeruan aingeru bat geiago zala ta abar esanaz. Kopla aietako bat onela zan:

Danok dakigu seme txikiya
an daguala zeruan,
anparatzalle izan dedilla
eriyotzako orduan. (5)

GAZTELU TA PELLO SAIKOLA

Gaztelu baseritik jetxi ta kamio-bazterrean dagoan Saikola ballaran, bazan, garai artan, beste bertsolari bat, berez Pedro Aranburu ta izengoitiz Pello Saikola esaten ziotena. Gaurko egunean Oñati'n bizi da.

Alkargandik ain gertu bizi izanik, zer esanik ez dago bertsoa pranko alkarri botako ziotena Gazteluk eta biak. Ona emen batzuk:

* * *

Orio'ko Ortzaika tabernan, bi lagun gazte zeuden: Pello Saikola ta orain Billabona'n bizi dan Manuel Leunda. Gaztelu ere an gertatu zan, eta bertso au bota zien:

(5) Aurraren aita, Prantxisku Peña, Etxaiz, Orio.

Bi mutil gazte daude
Sarikolakuak,
gorputzetik ez daude
ain gutxi plakuak;
nunai ez dira arkitzen
ok bezelakuak,
osasuna deiela
gure Jaungoikuak. (1)

* * *

Pazko-goiz batean, Pello Saikola Orio'ra joan, Jauna artu eta taberna batean sartu zan gosari txikia egitera. Bañan Gaztelu ere an tokatu zan, eta onek bertso au kantatu zion:

Pello dotore zaude
traje eta guzi,
komuniyua artzen
an zaitut ikusi;
martxa ortan txikitan
egin ziñan asi,
ta orain galtzerikan
eztezu merezi. (2)

* * *

(1) Pello Saikola bertsolaria, (Pedro Aranburu), Orio.

(2) Pello Saikola bertsolaria (Pedro Aranburu), Orio.

Jai-goiz batean, Pello Saikola Saikola'n, kamio-iskiñan zegoan. Gaztelu, berriz, Orio'tik, meza nagusitik, zetorren. Aren parera iritxi zanean, onela esan zion:

—Egun on, Pello.

—Baita zuri ere, Batista.

—Bertso bat kantatuko al dizut?

—Bai, gizona, bai; kanta zazu.

Ta Gazteluk onela kantatu zion:

Bertso bat kantako det
Jaungoikuan legez,
ixilikan egoten
ezta oso errez;
Pello, neri begira
dago erdi farrez...
txarrena etzera baña
onentxuena'r'ez.

Orduan etzitzaion gogoratu, bañan gero onako bertso au moldatu zuan Pellok, Gaztelurenari erantzuteko:

Kontestatzera nua
itzetik ortzera,
jakiñaren gañian
banua jartzera;

Gaztelu, ni tentatzen
zertan ari zera?
zedorrentzat mesede
obia bazera. (3)

* * *

Pello Saikola ta Gazteluk, Orio'ko Txokolate'neko tabernan, alkarri botatako bertsoak:

Pellok:

Aizu, Gaztelu, nere burua
beti izan det maitia,
eta gañera nekatu gabe
mantendutzeko artia;
ez det pentsatzen atxurrarekin
iñoiz trozora juatia,
esperatzen det nere bizitzan
bertsoetatik jatia.

Ta Gazteluk:

Aizak, i, Pello, Gazteluk orain
emango dik leziyua,
bertsoak ez dik irabazirik,
bakarrik dek bizi yua;

(3) Pello Saikola bertsolaria, Pedro Aranburu, Orio.

iri're beti ikusitzen zaik
ortako afiziyua,
ama alarguna mantendutzeko
zer nolako ofiziyua! (4)

PARRANDAN

Onako bertso au, oso ezaguna da. Askok Gaztelurena dala diote, bañan beste batzuek Udarregirena jotzen dute.

Zorionez, orain Oria'n eta leen Gaztelu baserri ondoko errotan bizi zan Juan Iparragirre'k erabaki du auzia, esanaz bera zaila angula arrapatzen ari ziranetako bat; jai-gaua omen zan, eta Gazteluk kantatu omen zien. Juan Iparragirre onek, orduan 16 bat urte zituan ezkerro, ta 1908 urtean jaioa dan ezkerro, bertso au 1924 urte inguruan kantatua izango da.

Era askotara jaso degu. Danetatik Maria Josefa Lertxundi'k (Errikotxia bertsolariaren alaba, Andu, Orio) eman diguna auke-ratzen degu:

Jendiak badaduka
aberastu naia,
angula arrapatzearren
utzi dute oia;

(4) Maria Joxepa Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren alaba, Andu baserria, Orio.

ola santifikatzen
al dezute jaia?
kalatu dezute baña
utsik dator baia. (1)

* * *

Bein batez, onako bertso au kantatu zuan
Gazteluk Orio'ko Marrota sagardotegian.

Adiskidia, ez asarratu
orain nik auxen esanda,
al dan guztiya saiatuta're
munduan bizitzen lan da;
gauz orrengatik ez dadukate
jo biarrikan demanda...
abek sagardua lasai saltze'ute
erdia ura emanda. (2)

* * *

(1) Basarri: "Aurrekoen Oroipena", *Argia*, 1935/
1/20: dana berdin, lenengo puntua izan ezik: Aberrasteagatik eiten dira saja.

Ardunbe izengoitiarekin firmatu zuan Felix Zata-
rain apaiz jaunak ("Udarrei", *Argia'ren Egutegia*,
1933) bertso au ere jartzen du, bañan Udarregirena
dala dio, ta era onetan dakar:

Jendiak badauka
arraxkatu naia,
txitxardiñagatik
utzi dute oia;
alperrikan benik
al dan arte saia,
kalatzen due baña
utsik dator baia.

(2) Pello Saikola bertsolaria (Pedro Aranburu),
Orio.

Tabernan, parranda egiñez, iru bertsolari zeuden: Txirrita, Mariñela ta Gaztelu. Onek, kantuan ari zirala, ala bota zuan bertso bat:

Gaberdi zarra pasa da eta
jo du goizeko ordu batak,
beti bezela ôiñ e gu emen
iru alproja galantak;
bistara azaldu biar baluteke
gaur egin ditugun faltak,
andria artuta biajatzeko
a zer nolako maletak! (3)

* * *

Bein batean, Gaztelu, lagun mordoxka batekin, bakallau pixka bat meriendatzen ari zan Galardi'ko tabernan.

Alako batean, Don Juan Lasa, Matxinbenta'ko semea ta Aginaga'ko apaiza zana sartu zan.

Asi zan bera ere tenedorearekin mokau batzuk tiratzen, eta Gazteluk, apaiz ura lagun aundia zuan ezkeru, bertso kantari asi zan.

Bertso asko kantatu zion, bañan onako puska auek bakarrik jaso ditugu:

(3) Antonio Zubizarreta, Azkoitia.

neroni ere konbertitu naiz
berori dala meriyo.

Jaungoikuaren ministro,
au sazerdote egin zanian
kontentu zan Jesukristo. (4)

* * *

Bañan beste batek esan digu, bi apaiz zira-
rala, Orio'tik pasiatzen zetoze, eta, Gaz-
telu topo eginda, bertso bat kantatzeko es-
katu ziotela, ta Gazteluk onela kantatu
zuala:

Orio aldeko jende guziaz
ematen diote gusto,
eliz aldeko lanak egiten
saiatze'iralako listo;
beren denboran konbertituta
badute makiñat gaizto,
bein sazerdote ein ziranian
kontentu zan Jesukristo. (5)

* * *

(4) Pedro Bidasoro, Eguzkitza baserria, Aginaga, Usurbil. Bera ere meriendatzen ari ziranetako bat omen zan.

(5) Pello Saikola bertsolaria (Pedro Aranburu), Orio.

San Pedrotan, Igeldo'ko pestetan izan ondoren, gauez etxe aldera zetozen, bide aldapatsu ta txarretik, eta, Biorreta ta Artikula-aundi bitartean, onela esan zien Gazteluk bere lagunai:

—Naiago nuke bateonbategen puntua jarriko balit!

Ta kuadrillako batek onela jarri zion:

Goitik abitu gera,
laister gera bian...

Ta Gazteluk:

Eztakit bide abek
nola egiñak dian;
estropozoka nua
bildurak aidian,
pasiatu izan det
paraje obian. (6)

* * *

(6) Manuel Urruzmendi, Arzabaleta, Zubieta, Usurbil.

Basarrik "Anécdotas Sueltas" izenarekin *La Voz de España*'n argitaratutako idaz-lanean: 2: laister gaituk bian; 4/ nork egiñak dian; 5: estrapuzu egiteko. 2 ta 3'gn. puntuak alkarrekin tokiz aldatuak daude.

Periodiku puska batetik artua degu, ta ez dakigu zein egunetakoa dan.

Gazteluk, il-kanpaia aditu zuan batean kantatua:

Difuntu edo difunta
kanpai-soñu ori,
errian bateonbat
il dala diruri;
errezatu ditzagun
bina Abe-Mari,
zeruan gerta dedin
orren anima ori. (7)

* * *

Egun batez, ijito eskale bat ikusi zuan Gazteluk Ortzaika'n, eta onako bertso au bo-
ta zion:

Ikaratutzen gaitu
gizon orren plantak,
berialaxe nua
jarritzera kantak;
bestiak bezelaxe
baditu bi anakak,
illia luzia ta
belarri galantak. (8)

* * *

(7) Juan Bautista Gesalaga bertsolaria zana, Zaraus.

(8) Pello Saikola bertsolaria, (Pedro Aranburu), Orio.

Erniyo mendira igo ta etxerakoan, Aia'n meriendatzen gelditu ziran zortzi neska-mutil gazte. Gaztelu ere an gertatu zan, eta onako bertso au bota zien:

Emen daude lau mutil
ta lau neska gazte,
ezkontzeko irian
dabiltzanak laiste;
alkarri beiratuta ez
dira jartzen triste,
neri eztit inportik,
or konpon zaitezte! (9)

* * *

Asto-xextero bat bere xexto-gintzan ari zan. Alako batean, Gaztelu andik barrena pasatzea egokitu zan. Dendatik irten eta ola esan zion:

—Zu ere alde ontatik, Gaztelu? Bertsorik ba al degu?

Ta Gazteluk bertso au kantatu zion:

Aizak, asto-xextuak
fuertiak eitzak,
ta ez dizkik galduko
neguko ekaitzak;

(9) Prantxisku Peña, Etxaiz, Orio.

ballenazko kantoiak,
zinkazko zumitzak,
oiek izaten dituk
puskatutzen gaitzak. (10)

* * *

Republika-denbora zan, botazio egunen
bat ain zuzen. Gazteluk, Usurbil'ko bodega
edo taberna batean, bertso asko kantatu zuan.
Aietako batek onela zuan bukaera:

alkar ondo uni dezagun
txit ezpagera eruak,
ia ekartzen ote ditugun
len galdutako Fueruak.

Andik irten eta Aginaga'ra joan zan.
Emen ere asko kantatu zuan. Pasadizo onen
berri eman digunak (11) alde egin zuanean
ere, kantuan ari zan, eta segituko omen
zuan oraindik pixka batean, ez baitzan ura
bereala erretiratzekoa.

* * *

(10) Gazteluren illoba, Gaztelu, Aginaga, eta
Juan Jose Lizarreta, Aginaga. Onek, *kantoiak* esan
bearrean, *ixkiñ da* esaten zuan.

(11) Pedro Bidasoro, Eguzkitza baserria, Agina-
ga, Usurbil. Zoritzarrez, etzan bertsoaren lenengo er-
diaz oroitzen.

1930 urtean, Gaztelu ta beste zenbait bertsolari Azpeitia'ko Loiola'ra eramán zituzten bertso kantatzera; bai makiñatxo bat kantatu ere.

Bueltakoan, estazioan trenaren zai zeudela, jesuita batek bertso bat despeidakoa eskatu zion Gazteluri. Onela kantatu zuan:

Itzbiriak lanak
izan ditu emen,
danok lagunak gera
guztiok alkarren;
azkenengo bertsoa
au dijua emen,
per omnia saecula
saeculorum, amen. (12)

* * *

Garai artako usuarioa zan, erramu berria jartzea txotx berria idikitzen zan sagardotegian. Bañan, dirudianez, tranpa egin zuten Orio'ko Etxaiz baserrian. Onako bertso au bota zien Gazteluk beintzat:

(12) Juan Jose Lizarreta, Aginaga.

Bertsoak bi aldiz dio *emen* puntuan; poto beraz. Emalleari galdetu ta "guk ala ikasi genduan" erantzun zuan.

.....
onera etorriya,
Jose onek ein digu marka
ikaragarriya;
gu engañatziâtik
apropos jarriya
sagardo zarra eta
erramu berriya. (13)

* * *

Gaztelu ta beste zenbait lagun Donostia'tik Lasarte'ra zetozen, kotxero batekin konponduta.

Bañan, Lasarte ondora iritxitakoan, kotxea geratu baño leen, salto ta alde egin zuten Gaztelu ez beste danak. Au bakarrik gelditu zan barrenean.

Kotxeroak Gazteluri kontu guzia paga-arazi nai zion; Gazteluk, berriz, berea bai, bañan besterenik etziola pagatuko esaten zion.

Ez ta bai, ez ta bai, denbora luzean jardun ziran, eta azkenean, Gazteluk, asper-asper egiñik, bertso au bota zion:

(13) Prantxisku Peña, Etxaiz baserria, Orio.

Etxaiz'ko beste bizitzako Domingo San Sebastian'ek beste onela eman zidan bertso au:

Martxa nolakua dan nago igarriya,
.....
jendia engañatziarren apropos jarriya
sagardo zarra eta erramu berriya.

Kotxeruak izena
omen dauka *landó*,
aurrian tiratzeko
badauzka bi mando;
badakit zeradela
aginduba ondo,
Gazteluk bakarrikan
ez dizu emango.

Ta ori kantatu ta “Adios, gari berriak ar-
te!” esanda, alde egin zuan berak ere, ba-
tere pagatu gabe. (14)

* * *

Gaztelu, astelen goiz batean, oraindik ere
etxeratu gabe omen zebillen, eta, sagardo-
tegitik aterata, au kantatu omen zuan:

Gureztat atera du
egun egokiya,
norbaitek izandu du
gure errukiya;
Jaunak barka dezala
gaur gure gaizkiya,
astelena pasatzeko
au dek eguzkiya! (15)

* * *

(14) Juan Jose Lizarreta, Aginaga.

(15) Maria Josepa Lertxundi, Errikotxia bertso-
lariaren alaba, Andu baserria, Orio.

Gaztelu, askotan bezela, Txokolateneko tabernan zegoan gau batez. Alako batean serenua etorri zan, bai Gazteluk bertso au bota ere:

Gizon bat etorri da
emen gure billa,
bizkarrian kapotia,
eskuan makilla,
atia dun-dun juaz
bulla ta ixkanbilla...
ez kasorikan egin,
or konpon dedilla! (16)

E G I A K

Garai artan bazan mutilzar bat, gorraize aundia zuana, izengoitiz "Xordo" esaten ziotena ta Intxorretako morroia zana.

Egun batez, Xordo au, pakerik eman gabe, "Bota bertsoa! Bota bertsoa!" ari zitzaion Gazteluri.

Azkenean, onek ala bota zion:

Konttuak konttu dirade baño
goazen kariño gozuan,
Intxorretako morroia onek
len andregaiia bazuan;

(16) Kristino Arruti Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren billoba, Andu baserria, Orio.

nere ustian ez apartian,
izan biar zun auzuan...
berriya ori sortu zanian
onen biarrik etzuan.

An ziran danak parrez asi ziran, eta Xor-
do ori galdezka:

—Zer esan du? Zer esan du?

Onela esan zioten:

—Ire andregaiari nobiyo berria azaldu zi-
tzaionean, ire bearrik etzuala!

Ta Xordo'k:

—Alare! Alare! Aundiagoa esan zuala us-
te nian! (1)

* * *

Bein batez, bertso bat eskatu zion andre
batek Gazteluri, eta onek ala kantatu zion:

Gazterik ezkondata
bizitza luzia,
ni akordatzen naizenez
askori pasia;
soñian galak eta
buruban aizia,

(1) Bautista Zumeta, Txokoalde, San Esteban,
Usurbil.

illiak apaintzeko
nun den orrazia? (2)

* * *

Gaztelu amaiketakoa artzen ari zan jai-goiz batez, meza nagusi ondoren, Aginaga²-ko tabernan. Alako batean azaldu zan mutilzar bat, gau-pasa egin ta etxera erretiratu gabe asteko erropa zar-zikiñekin zebillena. Asi zan bertotan lardaskan, bañan bat bakarra etzuan onik kantatzen. Orduan Gazteluk, ixillarazteagatik, bertso au bota zion:

Aspalditxuan emen gahiltza
bateko eta besteko,
traje piñ asko eztadukagu
jai-egunetan jazteko;
urtietan e aurrera guaz
andregai billa asteko,
ontaz aurrera obiak gaure
artzeko baño uzteko. (3)

* * *

Gazteluk, bruxaren poltxikutik errebista edo liburu bat ageri zuan; beste bertsolari

(2) Gazteluren illoba, Gaztelu, Aginaga, Usurbil.

(3) Migel Erauntzeta-Murgil, Murgil baserria, Igeldo.

batek, ori ikusita, bertsoa bota zion, liburuarekin apaiza ematen zuala esanaz. Ta Gazteluk onela erantzun zion:

Irakurritzeko dek
Ebanjeliyua,
txarrarentzat ezer ez,
onak premiyua;
danok diparentia
digu jeniyyua,
ixillik egon ari,
tonto arrayua! (4)

* * *

Andrearekin asarre xamar zebillen gizon bati, onela bota zion Gazteluk:

Andriakin asarre
dabilela esan du,
ezin omen da iñondik
iñora konpondu;
akordatu da baña
bastante berandu,
ola ibiltzekotan
obe artu ezpazendu. (5)

* * *

-
- (4) Domingo San Sebastian, Etxaiz baserria, Orio.
(5) Prantxisko Peña, Etxaiz, Orio.

“Aginaga'n giñan. Antxe erromerian ger-
tatu edo, nere lagun batzukiñ ostatu batera
sartu nintzan. Gaztelu bertotan ari zan, ba-
ña bakarrik.

Nere lagunak asi zitzaizkidan puntarak bo-
teaz, ta azkenean jarri niñuten berarekiñ.
Amazazpi urte nituan artean. Ene, zeñ la-
guntzalle gozoa Bautista! Seme bat bezela
artu ninduan. Nik ere alaitsu jarrai, ta
oraintxe aspertzera egin genduanean, gal-
deera batzuk egiten asi zitzaidan Gaztelu;
baña ez kantuz, itzez baizik.

Alkarren berriak jakiñez izketaldi gozoan
geundelarik, Usurbil'ko bi mutil gazte sartu
ziran bat-batetan. Oso dotoreak ziran, eta
Gaztelu ondo ezagutzen zuten.

Gurekiñ zegoala ikusi zutenean, bietako
bat emen dator abantan. Txapel ikaragarria
zekarkian.

—Tira, Gaztelu, bota bertsoa, bota aguro
—esaten zion, baxo-erdi ardoa eskeñiaz.

Ona emen kantatu ziona:

Oni ere txiki bat
nai nioke bota,
zer galdu nezake nik
geienera jota?
Korbata marratua,
txapela galanta,

kasik ez al daduka
kastillano-planta?" (6)

* * *

Bein batean, topo egin zuan Gazteluk bi
mikeletereekin. Auek esan zioten:

—Bota bertsoa, Gaztelu!

Ta onek auxe kantatu zien:

Emen ikusten ditut
nik bi mikelete,
bata da Martiñ eta
bestia Pelipe;
armak jarrita dauzke
espaldetan tente,
deskuidatutzen dana
eramango dute. (7)

* * *

“Atxua” zan Aginaga’ko mutil zar bat, bu-
ruan kolperen bat artu ta denbora askoan
emakumeen buruko pañuelo hatekin ibilli
zalako, bere denbora guziko “Atxua” izen-
goitia erantsi ziotena. Oso parranderoa zan;

(6) Basarri: “Aurrekoen Oroipena”, *Argia* 1935 /
I/20.

(7) Pello Saikola bertsolaria (Pedro Aranburu),
Orio.

aundiagoa izaten zalla izango zan. Ala, bertso au kantatu zion, egun batez, Gazteluk:

Atxua emen dabil
erdi mozkortuta,
eta gañera berriz
kopeta beztuta;
ortzetan dauka pipa
zortena moztuta,
berriya erosteko
dirurik ezta. (8)

* * *

Usurbil'ko elizan obraren bat egiña zuten. Erretoreak kulpitotik deitu zuan, eliza guzian etxea zala, ta sakrifizio pixka bat egin bear zala elizagatik. Jendea oso ondo portatu zan, al zuanak al zuana ekarriaz.

Urrengo igandean, erretoreak bertsolariak jarri zituan, jendeari eskerrak emateko. Bertsolarietatik bat, Gaztelu zan, ta onela asiera eman zion bertso-saioari:

(8) Bartolome Atxega, Mutiozabal baserria, Aginaga.

Orio'ko Pello Saikola bertsolariak:

Atxua au emen dago kopeta beztuta,
zurrut batzuk eginda erdi berdoztuta;
pipa ere daduka txortena moztuta,
berriya erosteko dirurik ezta.

Bikario jaunak lengo jayian
enkargu bat eman du,
nik aitzera dedanez publikuak
sakrifizioa egin du;
guk e deseo bagendun baña
polsak eztigu agindu,
intentziyua eduki arren
eztunak eman ezin du. (9)

* * *

Fameli bat, Igeldo'tik Orio'ra aldatu zan
bizitzez, etxea erosita. Mutil batek famili
ortako alaba bat nai zuan beretzat, bañan
etzuan iritxi. Orrekin minduta, egun batez
tabernan gaizki esaka asi zan neskatxa orren-
gatik. Gaztelu, ordea, an zan, ta aguro asko
ixildu omen zuan bertso au kantatuaz:

Igeldotikan abitu eta
oiek jo zuten Oriyo,
oaingo bertsua bota biar det
oiek dirala meriyo;
batzuek maiztar bizitzen dira,
bestiak propietariyo,
onek pozikan artuko luke
arek emango baliyo. (10)

* * *

(9) Manuel Etxabeguren, Santuenea, Usurbil.

(10) Juan Jose Lizarreta, Aginaga.

Onako bertso au, Gazteluk Donostia'ko ospitalean kantatua omen da, operatu ondoren:

Manteo'ko ospitala
gauza bearra da,
oso errenditurik
sartu nitzan ara;
kendu ziratenian
gorputzeko traba,
soseguz pasa nuan
San Agustin gaba. (11)

* * *

“Usurbillen misiyoak genituan. Sermoigileak iru bat bertso kantatu zuan egun batez. Gaztelu ere an zan.

Elizatik irtenda, berarekin topatu nintzan tabernan. Esan nion:

—Zuk erantzun egin bear zenion!

—Dudan egon nak, motell!

—Ta nola kantatu bear zeniozun?

—Nola? Esango dizut:

(11) Sebastian Salaverria, Oriamendi, Aiete, Donostia.

Illen amarrian asi ziran da
emeretziyan bukatu,
sermoi ederrak egin dituzte,
ezin gentzake ukatu;
barkaziyua eman digute
egiñagatik pekatu,
gure animak salbatziâtik
eztira gutxi nekatu.

Bigarrena ere kantatu zidan, bañan ez daukat gogoan". (12)

* * *

Egun batez, republika jarri zan urtean, Orio'ko Hotel Salsamendi'n omen zegon Gaztelu. Gazte-kuadrilla bat sartu zan, eta tentatu egin zuten, republikaren gañean bertso bat kanta-azitzeko. Ta onako au kantatu zuan:

Milla beatzireun ogei eta
amaikagarren urtian,
republika bat etorri zaigu
Españiako partian;

(12) Bautista Zumeta, Txokoalde, San Esteban, Usurbil.

gure fedia sartu nai dute
oinpian edo lurpian,
kostako zaie dana galtzia
ni bizi naizen artian. (13)

* * *

Gizon bat ari zan, Ortzaika'n, aala kon-
pontzen, muturra zaplana duan anguletarako
txalopa konpontzen alegia. Gaztelu ere an
gertatu zan, eta bertsoa botatzeko eskatu
zion. Onela bota zuan:

Izugarriyak dirade
aiton onen maleziyak,
ondorengôk e eukiko ditu
bere moduan eziyak;
materialak naiz izan arren
pixkat usteltzen asiyak,
galipotakin tapatzen ditu
egundañoko guziyak. (14)

* * *

Gazteluk nunbait ere botea, bertsoan ari
zala.

(13) Kristino Arruti Lertxundi, Errikotxia bertso-
lariaren billoba, Andu baserria, Orio.

(14) Praixku Peña, Etxaiz, Orio.

Gure munduko bizi-modua
luzia edo laburra,
noiz eta nola il biar degun
asmatzen ezta samurra;
anima nunbait ibilliko da,
gorputzarentzako lurra,
zer estadutan jun biar deran
nik dadukadan bildurra! (15)

* * *

Bein Gazteluk, tabernan zegoala, bertso
au kantatu zion zestero bati bere andreaga-
tik:

Andria onek izan biar du
etxetikan bialduta,
gaiztuarekin bost pazientzi
artu egin biar du-ta;
Bulebarrian ikusi nuben
soñeko gonak galduta,
zeladoriak eraman zuben
beso ondotik elduta. (16)

* * *

Orio'ko tabernaren batean topo egin zu-

(15) Praixku Peña, Etxaiz baserria, Orio.

(16) Maria Joxepa Lertxundi, Errikotxia bertsola-
riaren alaba, Andu baserria, Orio.

ten alkarrekin, bein batez, Aia'ko Leon Txiki aizkolariak eta Gazteluk. Onek bertso au kantatu zion, bizkarretik elduta:

Egi txiki bat dizut
bertatik esango,
arrazoi txarrarikan
ez dizut emango;
nerekin okerrikan
ez dezu izango,
ondo moldatzen zera
—ikusita nago—
batzuetan piñ eta
bestietan tongo. (17)

(17) Juan Jose Lizarreta, Aginaga.

Pello Saikola bertsolariak, berriz, beste onela eman zidan:

Aixkire oni diot
egiya esango,
gure artian ezta
okerrik izango;
arrazoi txarrarikan
ez diyot emango,
au bapo ibiltzen da
pintasun ta tongo.

BERTSO-PAPERAK

(1902)

BILBAO'KO ESTROPADARI

Onako bertso-paper au, Gazteluk jarria da. Ala esan digute, ao batez, Gaztelu baserri inguruko jaun auek: Gazteluren illoba, Aginaga; Pedro Bidasoro, Eguzkitza baserria, Orio; Pello Saikola (Pedro Aranburu), Orio; Martin eta Jose Peña anaiak, Sarobe baserria, Orio. Ta, erdizka edo osorik, buruz zekiten zenbait bertso eman ere bai.

Bañan, gero, Orio'ko apaiza dan Sotero Plazaola jaunak, oriotarren batek kopiatutako bertso-kuaderno bat eman zigun, ta ontan jarri-aldi osoa arkitu genduan.

Irakurlea oartuko danez, gaia da 1902 urteko Bilbao'n jokatu zan estropada bat, eta bertsoak ondarrutarren kontra egiñak dira.

- 1/ Milla bederatzi eunerekin
gañera beste bi urte,
Kristo mundura jaio zanetik
asi ta oraiñ bitarte;
Bizkaiatikan Gipuzkoara
egonagatik aparte,
pensatzen etzan itzegiteko
bidia jarri digute.
- 2/ Ondarruatik etorri dira
Oriora abisoak,
ori erozeñek pensa lezake
ez dirala prezisoak;
oso kontentu omen dahiltza
ango agure ta atsoak,
dana arrotu baño lenago
jarri biaizket bertsoak.
- 3/ Estropara bat premiyokoa
Bilbaon izan zan meriyo, (1)
Ondarruako kuadrilla ori
ez dago oso seriyo;
lenago altu etziran baño
oraiñ omen dira iyo,
bañon zertako esan tranpiyan
ibilli dala Oriyo?

(1) Bertso-kuadernoak, *Bilbaon izan meriyo* esaten du; *zan* ori gerok erantsia da, ala bear dualakoan.

4/ Bilbaotikan gure billa zan
jaun bat etorri propiyo,
lenago ere franko azaña
egiña genden meriyo;
jornalagatik izandu gera,
ez giñan boluntariyo;
biar bezela itzegin, jaunak,
gezurrak eztu baliyo.

5/ Nola Oriyon dagon jendia
oso indartsu ta bero,
orregatikan estroparara
mugitzen gera aguro;
eman ziguten mantenua ta
eguneko seiña duro,
gañera kanpo asko ikusi,
kontentu gera entero.

6/ Ondarruako pasadizuak
jarri nai ditut kantetan.
asunto ori lastima baita
bukatutzia batetan;
oiek beñere ezin kabitu
tokatutzen dan marketan,
berak txalopa luziagoa
eraman zuten tranpetan.

7/ Txalopa ori eramán zuten
punta biyetan moztuta,
zer malezitan ibilli diran
ez gaude oso aztuta;
eman dizkiten kuarto oiekin
dabiltza guztiz poztuta,
bañon ala ere ez dira jarri
biziro aberastuta.

8/ Oriotarrak momentu artan
dantzatu zuten arrauna,
lastimaz zuben danetatikan
txaloparíkan txarrena;
aiñ zan ariña eta sinplia,
batela zirudiyena,
bañon alare guretzako zan
premiyoa laugarrena.

9/ Gure txalopa aieri eman,
berena guri trukatu,
galdetu giñen apustu bat
nai ote zuten jokatu;
etzuen iñork baietzik esan,
ixillik ziran geratu...
oraiñ eztakit orretaraño
zeñekin diran berotu.

10/ Beren tranpiko txalopa oiekin
an ziranian ikusi,
Bilbao aldeko jende guztiyak
itzegin ziyen itxusi;
begira zegon publiko dana
fueraka zitzaien asi,
beren tokira joan ditezela
ostera andik igesi.

11/ Señalatuak berrogei ta bat
oin jarri zuten luzian,
bañon oriyek ezin kabitu
tokatutzen dan klasian;
beste guztiyak nastutziâtik
kasikan ara joan zian,
bañon ez dute millonario
aundirik sartu etxian.

12/ Oriorekin zer-eginiñkan
etzenduten apustuan,
kulparik gabe burla egiñaz
jarri gaitu desgustuan;
Ondarruako kuadrilla ori (2)
ari zaigu pretestuan,
oiek gañako arraunlariyak
badirade Gipuzkuan.

(2) Bertso-kuaderoak *Ondarruako kuadrilla* zion;
motz gelditzen zalako, *ori* erantsi egin diogu.

13/ Ondoren artan berak ziyoten
nai zutela uniyua,
bañon aguro mudatutzen da
zenbaiten oponiyua;
Gipuzkoaren kontra da beti
gizon oien jeniya,
ardotarako gaña etzuten
Bilbaoko premiyua.

14/ Jende guztiyak badaki zer dan
artu duten apustuba,
oriyen bolsa betia aña
izan biar du ustuba;
amazazpi milla errial artu,
sei milla pezta gastuba...
txalopa ortako soziedadia
laister da aberastuba.

15/ Azaña ori egin dutela
ez da oiekin atsegin,
guztiyen buru berak daudela
egiten dute otsegin;
seguru uste zuten denboran
zuten len ere utsegin, (3)
obe dezute Gipuzkoari
errespetoan itzezin.

(3) Puntu ontan 1890 urteko estropada aitatzen da. Ontan, donostiarrak, Luis Carril buru zutela, ondarrutarrak menderatu baitzituzten.

16/ Amaseigarren kopla onetan
nijua errematera,
Ondarruako mariñelentzat
orra bertsoak atera;
iñork erosi nai balituzke
saltzeko daukat papera,
arreglatuko gera tratuban,
etorri eramatera.

ITURRIA: Jarri degun era, Sotero Plazaola apaiz jaunak eskuratu zigun bertso-kuadernotik artua da, osoena ez-ezik, seguruenen ere bera dan ezker. Erriaren buruan, pixkabanaka ta ustez uste gabeen bada ere, aldatu egiten baitira bertsoak. Ona emen, asieran aitaturako jaun aiek emandakoetan, arkitu ditugun aldaketak:

1/5: Gipuzkua au; 1/7: pentsatze'etzana itzegiteko; 2/3: jende guziyak badaki ondo; 2/7: danak arrotu; 2/8: jartzera nua bertsoak; 4/3-4: lenago azain aundiyak egin — ginduzelako meriyo; 4/5: diruban truka joanak giñan; 5/5: mantenu ona eta...; 9/2: arena guri trukatu; 9/3-4: galdetu giñun estropada bat — ia nai zuten jokatu; 9/5: baietzik etzun iñork esan da; 9/7-8: orain ez dakit oinbesteraño — zertako diran arrotu; 10/1: txalopa orrekin 10/2: ziradenian ikusi; 10/7-8: berriz etxera joan zitezela — andik ostera igesi; 13/1-2: lenago berak esan ziguten — bear zala uniyua; 13/3: aguro asko mudatutzen da; 14/5: amazazpi milla errial premiyua; 15/1-2: Ondarruako kuadrilla onekin — eztago oso atsegin; 15/5-6: garai onena zuten denbora — lenago zuten utsegin; 16/1: kopla onekin; 16/7: tratuban arreglatuko gera.

(1903)

BERTSO BERRIAK

Onako bertso auek ere Gaztelurenak dira. Ala esan digu Domingo San Sebastian'ek (Etxaiz, Orio), baita ere 15'garren bertsoa eman. Migel Herrero zanari (Komenzaran, Aginaga, Usurbil) ikasia omen du. Ontatik atera degu, gure artxiboan genduan egillearen izenik gabeko kanta-paper au, Gazteluk jarria dala:

- 1/ Bertso berriak jartzera nua
ejenplo eder batian,
gazte jendia dibertitzeko,
ezta iñoren kaltian;
atentziyua jarri zazute
paper au letu artian,
bederatzi eun da gañera milla
ta irugarren urtian,
zer pasatu dan esan biar det
Gipuzkoako partian.

- 2/ Penagarrizko gauzak dirade
mundu ontako kasuak,
iñork ez ditu disimulatzen
projimuaren pausuak;
adierazi al banitzake
zer diran pasadizuak,
gertatu diran komeri (y) oiek
dauzkat goguan jasuak,
gure erriko neska zar bati
jarri biaizkat bertsuak.

- 3/ Neroni eta beste bi lagun
gaude triste ta seriyo,
Goierritikan neska zar ori
agertu zala meriyo;
izketan asi eta nun-naitik
enbusteriya dariyo;
salbaziyorik Jainkuak orri
baldiñ ematen badiyo,
fintasunian ibillitziak
eztu askorik baliyo.
- 4/ Iru nobiyo izandu ditu
urte ta erdiren barruban,
ejitanaren antzekua da
soñian eta barruban;
pañuelo bat zakukizkua
ibilitzen du buruban,
ta alpargata tela gabiak
balenziana moduban,
ezta orlako gona-dunikan
Gipuzkua inguruban.
- 5/ Zapaterua modu orretan
lenbiziko nobiyua,
mutill gazte bat erregularra
jornala diariyua;
etxe oneko semia eta
ofiziale yayua,
esaten ziyon "zuretzako da
nik dedan amoriyua",
baño aguro mudatutzen da
zenbaiten oponiyua.

6/ Modu orretan pasa zituzten
sei illabete bakarrik,
ta ondorian mandatariya
eztubela aren biarrik;
errespuesta bialdu zion
etzala ezeren okerrik,
alperrik galtzen bazegoala
ura zan beziñ ederrik,
sorgiñ guziyak dantzan jartzeko
eztu iñoren biarrik.

7/ Zapaterua modu orretan
disponitu du uztia,
urte batzubek zeduzkala ta
naiago dula gaztia;
Bitoriyatik etorritako
barkillerua bestia,
biyak igualak izatiâtik
bere moduko trastia,
zenbat persona eskarmentatzen
oso errazak ezta.

8/ Biyak beti or ibiltzen ziran
aurrera eta atzera,
gaztetan orla ibiltzen dana
zer izango da zartzera?
Bitoriyara bein jua ziran
festak zebratutzera,
ta nobiyuen aita eta ama
zein ziran ezagutzera...
gero zer moduz laja zinduen
akordatutzen al zera?

- 9/ Gaba pasata goizian jeiki,
 bazijuala jazteâ,
 itxogiteko berialaxen
 bazetorrela osteâ,
 engañatu ta ura laja ta
 balkoian bera jeste'a
 iru saltuan ezkutatu zan
 kale batetik besteâ...
 beti ainbeste korritu badu
 Californiyan laste'a. (1)
- 10/ Denbora jun da denbora etorri
 iñondik etzan agiri,
 zer asmo zuan mutil gaiztuak
 etziyon esan iñori;
 erdi negarrez an zegoen berriz
 neska kopet-illun ori,
 galdetzen ziyen ze pasatzen zan
 aren aita eta amari...
 Euskal-erriyan etzan pasako
 beste onenbeste komeri.
- 11/ Amaika bider damutu zaio
 Bitorira abituba,
 barkillerua igesi juanda
 bakarrikan geldituba;
 irabaztia espero zuen
 duda gabe merituba,
 lenago asko etzuben baña
 galdu zaio kredituba,
 uste baño len Euskal-errira
 gezten (*sic*) allegatuba.

(1) laste'a = laster da.

12/ Euskal-errira sartu zanian
etzegoan oso dotore
tximak zintzilik, oñetakorik
etzeukan berriz batere;
eskarmentuban eziñ sartu zan
orla ibilli ta alare,
esan geniyon egin zezala
pensatutzi az fabore,
baño orrela ikusiko da
ori oraindikan gero're.

13/ Neska zar ori orain bizi da
nere etxetik urrian,
oi ta emezortzi urte zaizkiyo
kunplitutzen Agorrian;
amaika bider oi belauniko
jarri da nere aurrian,
nola dagoen bakarrik eta
senar baten biarrian...
inozentia izan banitzan
ez neguan leku txarrian.

14/ Bere denbora ez du pasia
zenbaitek beziñ itxusi,
lastimaz dauka itxura txarra,
urtiak juanak igesi;
gazte denboran bazuen orrek
batek ainbeste pantasi,
izketan ere txit politika
aundia zuen ikasi...
oraindik ere saltzeko dago
iñork nai badu erosi.

15/ Neska zar ori dala meriyo
penak badira pasiak,
ez jaiotzia obe litzake
orlako kristau klasiak;
zurruterako aña eztitu
igarrak eta eziak,
gorputz sastarra, begi gorriyak,
anka-makillak luziak,
gonak soñian jaso eziñik
oraiñ or dabil gosiak.

16/ Bere denboran ez da izandu
oso alaja zuzena,
baña alare beti beretzat
gustatzen zaio gauz ona;
bere bototik amaika bider
artuko zuen gizona,
oiek guztiyak orrela dira,
sinistu nere esana,
kastigatzeko bildur ezpanitz
esango nuke izena.

17/ Oi ta emezortzi urte baditu,
ez dago dama gaztia,
obia luke txorakeriak
alde batera uztia;
zer ote da bein amildu eta
goitikan bera jeixtia?
kostako zaio berriz lenago
zuen malla irixtia,
denbora labur ospitalera
juan biarra da tristia.

18/ Neska zar orren pasadizuak
 orra paperian jarri,
 konzientziya kargatzia zan
 ixilik uztia orri;
 zer alaja dan berealakuan
 iñork ez diyo igarri,
 ia, gaztiak, papertxo bana
 eramatera etorri,
 amar zentimogatikan ditut
 emezortzi bertso jarri. (1)

(1) Bertso-jarrialdi onek bi argitaraldi izan ditu: Bata, Gazteluren denborako, "Tolosa: Imp. de E. López", Alsasua'ko Concepción Mendiluze'ri jaso. Bestea, askoz geroagoa, "Tip. Elustondo — Zarauz", Lasarte'ko dultzaña jotzallea zanaren etxetik. Bigarren paper onek, 3, 11 ta 16'garren bertsoa palta ditu. Gañerakoetan, aldaketa auek ditu: 1/3: gazte jendia diberti dedin; 1/8: berrogeta lauho urtian; 2/5: adierazi al banezake; 2/7: gertatutako komeri oiek; 2/8: goguan dauzkat jasuak; 2/10: jartzera nua bertsuak; 4/1: Iru nobiyo muratu ditu; 4/2: urte ta erdi barruban; 4/3: ijitaren antza aundiya; 4/4: daduka begiratuban; 4/7: ta alprajetak tela gabiak; 5/1: Zapaterua izan du orrek; 6/1: mcd u orretan pasa zituan; 6/4: etzubela aren biarrik; 6/6: eztala ezeren okerrik; 7/3: urte batzuek darduzkala ta; 8/9: gero zer moduz laga zenduban; 9/5: engañatu du ura lagata; 9/6: balkoitik bera jeixtea; 9/7: iru pausuan ezkutatu da; 10/7: galdezen ziyen zer gertatzen zan; 10/10: beste oinbeste komeri; 12/7: monja juan baño esposatzia; 12/8: naiago dudarik gabe; 12/9: ori orrela ikusiko da; 12/10; ai oraindikan gero're; 13/1: Nexka zar ori bizi da orain; 14/5: gazte sasoiari bazuan orrek; 14/7: izketan ere gradu aundiyan; 14/8: dotore zuban ikasi; 18/7: ongi merezi ditubelako; 18/8: orra amabost bertso berri; 18/9: ia, gaztiak, papeltxo bana; 18/10: eramatera etorri.

(1905)

BERTSO BERRIYAK

(ORIYO'KO MISIOARENAK)

- 1/ Gipuzkuako erri polit bat
emen daukagu Oriyo,
misionistak izandu dira
oso umill da seriyo;
pekatariyak konbertitzera
etorririkan propiyo,
aien deadar eta sermoiak
etzuten gutxi baliyo,
amaika zabar mudatu gera
oiek dirala meriyo.

- 2/ Milla ta bederatzi eunekiñ
asi da bostgarren urtia,
aurten zer ditxa izandu degun
eman biar det partia:
Aita Ibarguren sermoilari bat,
Aita Aizpurua bestia,
agertu dute gureganako
guztizko borondatia,
aik bederatziurren batian
alegiña egiñak-tia.

3/ Otsaillaren emezortziyan
ziran predikatzen asi,
asko euskaldun ederragorik
iñon ez degu ikusi;
salbaziyo bide ederrak
orain ditugu ikasi,
len ibilliak ez bagerade
pekatubaren igesi,
esan diguten barkaziyua
eskatutzeko Jesusi.

4/ Gure Jainkuak emanik oiek
badaukate birtutia,
esan digute: Pekatariya.
arren, konberti zaitia;
lastima dala gure animak
tormentu-pera joatia,
obe degula penitentziyak
mundu ontan egitia,
Aita San Pedrok irikitze
zerubetako atia.

5/ Aita Aizpuruak ematen zigun
gauz orren abertentziya,
infernua joan edo salbatu
zer dagon diferentziya;
erakutsi du nola irabazi
leikian induljentziya,
konfesiya'on bat egiteko ta
kunplitu penitentziya,
orduban dala sosegatutzen
nork bere kontzientziya.

6/ Jesus gure zai an omen dago
zabaldurikan besuak,
ikusi eta errukiturik
gure munduko pausuak;
konbertitu ta ipiñi gaitu
oien izketa gozuak,
izugarriyak iruditutzen
pekatariyen kasuak,
miserikordiya izan dezala
Jaungoiko amorosuak.

7/ Jesus zerutik ari omen da
beti oju eta diar,
Jaungoikuatik, gure anima
ez degula galdu biar;
gusto piska bat pasatziâtik
atzo nola gaur ta bigar,
ondorenian etorriko da
ez dakigu zenbat negar,
projimuari lagun egiñaz
danok artu zagon alkar.

8/ Oriyo ontan egongo giñan
pranko anima eritu,
guztiyok ondo sendatu arte
fuerte zaizkigu aritu;
zerubetako bide onetik
obe degula segitu,
etsai gaiztuen tentaziyuan
ez gaitezela gelditu,
geren animai kontu artzeko
gogor enkargatu gaitu.

- 9/ Gure animak artzai oiekiñ
izandu duten mejora,
zenbat dan eziñ konsideratu
iñondik eta iñora;
uste baño len joaten zitzaigun
beira jarrita denbora,
malko gozuak iya ixuriyan
irteten giñan kanpora...
biyotz biguña ez du kristabak
or konbertitu ez bada.
- 10/ Gure erriko agintariyak
oi zan desio zutena,
Jaungoikuaren ministro oiek
etorritzia gugana;
nunbait zierito bazerakiten
oso premiyan geundena,
konseju eder franko badute
pulpitutikan emana...
askok daukagu sentimentuba
emendik lentxo juana.
- 11/ Jendia pranko juntatzen giñan
bertako edo erbeste,
konseju onak oiek guretzat
emen zabaldu dituzte;
asko gerala infernurikan
danik ez degunak uste,
ta ez degula bildurtu biar
ara jutiaz ainbeste...
amaika biar otsegiñ dute:
Arren, salbatu zaitezte!

12/ Jaun aundi oiek esan digute
nola egiñ esamiña,
errepasatutzeko lenbizi
libruban dagon dotriña;
proposituba artu zagula
biyotzetikan txit piña,
damutasuna ere fuertia
len pekatuba egiña,
aiek nai dute danak zerura
sartuko baldiñ bagiña.

13/ Jakiña dago, konfesiyaok
bost kondiziyo baditu:
lenbizikuan geren barrena
biagu esamiñatu;
asmo sendo bat artu guziyok,
dolore ta propositu,
laugarrenian pekatu danak
biar dira konfesatu,
kontzientziya satisfazyoz
betiko dedin geratu.

14/ Pulpitutikan egiñ digute
nork daki zenbat alegiñ,
pekatariyen biyotz gogorra
beiñ ondo bigundu dediñ;
guztiyok degu ikaratuta
konfesiya'on bana egiñ,
damutasuna firmia eta
propositu piñarekiñ,
Jesus maitiak asarrerikan
oraiñ ez dauka gurekiñ.

16/ Emen jendia pentsatzen zuten
egongo zala premiyak,
orregatikan etorri ziran
zeruko mandatariyak;
San Inazion seme leialak,
platikante egokiyak,
doai ederrez betiak daude
bata bezelaxe biyak,
zeiñ ez lituzke konbertituko
orlako sermoilariyak?

16/ Indar aundiya dala diyote
etsaien tentaziyuak,
baña aguro bentzutzen dula
Jesusen bendiziyuak;
askotan esan dute uzteko
pekatuko biziyuak,
biar bezela kunplitzeko
geren obligaziyuak...
konseju oiek eman dizkigu
Oriyoko mixiyuak.

17/ Etsai gaiztua or dabilela
luzaturik atzaparrak,
gure animai eman nayian
infernuko su ta garrak.
amaika bider otsegiñ dute
ez izateko zabarrak,
pulpitutikan egiñ ere bai
sekulako deadarrak,
saia gaitian ondo kunplitzen
oien konseju ederrak.

18/ Konfesiyan ibilli gera
eliz guztiya betian,
artuta degun proposituba
kunplitzen saia gaitian;
onak izaten baldiñ bagera
emen geran bitartian,
a zer poza ta konsueluak
beste mundura joatian,
Aita San Pedrok sartuko gaitu
zerubetako atian.

19/ Biba Oriyon aurten izan dan
mixiyo leial ta ona,
makiñatxo bat konseju eder
badute guri emana;
dudarik gabe bazerakiten
aien premiyan geundena,
atentziyua iduki degu
jaun aundi oriyengana,
konbertituta utziya dute
Oriyoko jende dana.

20/ Esan digute berriz oitura
txar oietan ez asteko,
maisú eskasak ez daude oiek
eskolan erakusteko;
enpeño asko egiñ digute
relijiyuai eusteko,
ta kongregaziyo-egunetan
zinta-medallak jazteko...
esan dute zer egiñ bear dan
zeruba irabazteko.

21/ Asko baliyo du zerurako
biria erakustiak,
oraiñ animoz gelditu gera,
lenbizi giñan tristiak;
orra publiko asko ipiñi
gaur oriya albistiak,
induljentziyak izan litzazke
obek ondo ikastiak...
oriya onran orra bertsuak
jarri Gaztelu gaztiak. (1)

(1) Bertso-papera: "Victoriano Iraola-ren moldizkidan", Errenteria'ko Jertrudis Arrieta zanarengandik.

BERTSO BERRIYAK

Bertso auek, moldiztegiaren izenik gabeko kanta-paper batetik artuak ditugu. Kanta-paperak, Artola'ren "Erari maitagarriya" asten diran bertsoak ditu azpiko aldean; gañekoan, berriz, onako auek.

Gazteluren izena ez da iñon ere ageri; bañan Bautista Zumeta'k (Txokoalde, San Esteban, Usurbil) eta Orio'ko Pello Saikola bertsolariak, Gazteluk andregaiari jarritako bertsoak ere bazituala esan ziguten, ta bai bertso ta puntu eman ere. Auen bidez arkitu degu bertso-papera; au Inozenzio Urkia'k (Portuene, Alzibar, Oiartzun) emanik genduan.

Bertsoak 1924 urtean jarriak dira, bigarrenak dionez. Urte onetan, Gazteluk 44 urte zituan; geitxo, bearbada, andregai billa asteko. Bañan, bertso zarren batzuk berritu nai zutenean, urtea aldatzen ere bazekiten inprentak. Liburu ontan bertan degu erakusbide ederra; 90'garren orri-aldeko bertso-sallean, lenengo bertsoak urtea esaten du; bañan lenengo argitaraldiak, Gazteluren denborakoan, 1903 urtea, ta, bigarrenangoan, 1940. 1924 dion ortan, beste urteren bat esango zuan, beraz, bertso auen lenengo argitaraldiak.

- 1/ Erreparua jarri zaiozu
paper ontako gauzari,
alaitasunez betia nago
eutsi eziñik pozari;
denborarikan ez degu izaten,
lautik irutan presari;
maitetasun izugarriya
nola dizudan nik zuri,
aspaldi ontan zer moduz bizi
zerade, nere Rosari?
- 2/ Milla urte ta bederatzireun
gañera ogei ta lau urte,
bertso batzuek ateratzeko
lenguan esan dirate;
gauz ori ondo entzun artian
jarri belarriyak tente,
esan biar det neskatxa eder bat
nola deraden txit maite,
alegiña saiatuko naiz
ori neregandu arte.
- 3/ Ai nere maite zoragarriya,
ez nazu gutxi poztutzen,
asko dirade baña zu aña
etzait besterik gustatzen;
asi biezu dotia eta
arrio ona prestatzen
neroni ere ez naiz ariko
edozein moduz gastatzen,
engañatuta bizi zerade
ez badezu sinistutzen.

4/ Nere aingeru pare gabia,
eder-ederra zu zera,
aurreneko non izan giñaden
eman nai det aditzera;
Errenterira Madalenetan
an festak ikusitzera,
ta alkarrekin etorri giñan
gero andikan etxera,
nik oraindikan goguan daukat,
zu oroitutzen al zera?

5/ Josten ikasi zenduen eta
ondo dakizu plantxian,
ai orrelako lore eder bat
baldin baneuka etxian!
askok bezela maitetasuna
ez dizut gero atzian,
eztezu asko usteko baño
zutzaz gogoratutzian,
izugarrizko alaitasun bat
sartutzen zait biyotzian.

6/ Asko ez dira mundu onetan
zu bezin gustagarriyak,
ille ederra buruan eta
kolore zuri-gorriyak,
gorputza guziz egokiya ta
zuri-urdiñak begiyak;
nere kristabak, oek sinistu
zergatik diran egiyak:
ez du mirabe politagorik
iñon mantentzen ogiyak!

- 7/ Aste onetan ikusi ez ta
nago izugarri triste,
baña, Rosari, alkar billatu
biar degu biyok laiste;
zu zeranikan etzat aztutzen
gau ta egun, jai ta aste,
oiek egiyak diradenikan
akaso ez dezu uste,
ezerekin ni ez naiz poztutzen
zuk ikusita ainbeste.
- 8/ Aingeru baten gisa zabiltza
gutzizko apain jantzita,
alaitasun bat artutzen det nik
zu orrela ikusita;
egunen batez zure etxera (1)
egin bear det bisita,
maitetasuna zuretzat daukat
iltze gogorrez josita,
besterena ni ez naiz juango
zu bakarrikan utzita.
- 9/ Gabon zarrez zurekin nai nuke
Elgoibarrera juatia,
izugarriya da zuretzako
daukadan borondatia;
zu zeran bezin izar ederrak
munduan banakak-tia,
nai nuke zuri graziyak eta
alabantzak ematia,
oek ederki letu itzatzu...
ariyo, nere maitia!

(1) Paperak *egun batez* zion; moldiztegiaren uts-
egiñen bat izango dalakoan, *egunen batez* jarri degu.

(1919)

BERTSO BERRIYAK

ANTONIO ELIZALDE'K JARRIYAK

Bertso auek irakurtzen entzutean, Gaztelurenak zirala esan zuten Orio'ko bertsozale askok. Auetako iñork ere ez du ezagutu "Antonio Elizalde" izeneko ez oriotarrik eta ez kanpokorik. Beren iritzirako, "Antonio Elizalde" saltzallearen izena edo disimulatzeko jarri zuten ez-izenen bat izan diteke. Beren esanera, ona emen bertso auek Gazteluren liburuan, "Antonio Elizalde" izen edo ez-izen orrek duda-antza pixka bat badakar ere.

Estropada au, 1919'ngo. Agorraren 7'an jokatu zan; iru treñero ziran, eta onela gelditu ziran: aurrena, Orio; 2^ogn.: Pasai San Pedro; 3^ogn.: Donostia.

1/ Donostiyatik Oriyorako
bertsuak dituzte jarri,
Bilbaon zerbait egin dutela
arro dira izugarri,
suertez irabazi duena
guziyok degu igarri,
txalupa berdiñakin jokatu
nai badezute, etorri!

2/ Agor-illaren zazpiyan giñan
Kontxan jokatzen abitu,
Donostiyako bati arrauna
ausitzia egokitu,
berriz jokatu gabe orduan
iñola ezin kabitu,
oraiñ guk desafiyo eginda
ikaratuta gelditu.

3/ Bilbaoko estropa eginda
ojak zabaldutzen asi,
oietan zegon "gaur Kirikori
iñork ezin irabazi",
txalupa berdiñakin ez gera
bear bezela ikusi,
ez esan zuek zeratela oraiñ
Kantabriyako nagusi.

4/ Nere lanakin arrazoiakin
eman nai diyot segira,
kosta guziko arrantzaliak,
jarri zaitezte begira;
txiripazko premiyo orrekin
ixilldu gabe ai dira,
oik baño arraunlari obiak
Kantabri ontan badira.

5/ Bertso oietan jartzen digute
ondata dala Oriyo,
oiek ez bezela guk erriya
aspaldiyan degu iyo,
berak biartu gaituztelako
egin zaie desafiyo,
pozik jokatuکو zuten baldin
egon baziraden fiyo.

6/ Geiena zein geran ikusita
ori bear zan bukatu,
Oriyotarrak arraun-lanian
berriz nai zuten nekatu,
Donostiar da Zumayarrakin
bear genduen jokatu,
paperetan gezurrak jarrita
biyak digute ukatu.

7/ Gizon oiekin gu jokatzeko
jarri giñan beriala,
bildurtu ez baziran uste det
nik etorriko zirala,
Zumaiatikan esan digute
txalupa igualak dirala,
ori sinisteko ez pensatu
orren txoruak gerala.

- 8/ Patroiakin muturka gaudela,
ori gezurra sortzia!
nunbait pensatuko zuten oiek
guri neurriyak artzia,
zer dala uste dezu ez diran
gauzak paperan jartzia?
orrelakuak merezi luke
presiliyuan sartzia.
- 9/ Txokolate bera jatxi naian
daude kopetak beztuta,
zenbat irabaziyak dituen
al daukazute aztuta?
amabi saiotan bat besterikan
oraïndik galdu eztu-ta,
orren arraun-soñura guziyok
egoten giñan poztuta.
- 10/ Entierrua egiten biziyai
ibillera itxusiyak,
ori gaizki dagola diyote
persona formal guziyak,
umill askorik Kontxa aldian
daduzkagu ikusiyak,
gu gerade jostatzen oieri
nolanai irabaziyak.

11/ Oien izketa gure artian
dago ederki jasua,
ez al zazute akordatutzen
lenagoko erasua?
iru urte da artu zutela
izugarrizko mazua,
negarrez egon ziran orduban,
etzuten egun gozua.

12/ Orduban zer izan nuen orain
nago adierazteko,
tostan ezin ondo kabituta (1)
arraun-lanian asteko,
gizon petral batek esan zuan
zerrakin anakak mozteko,
ez al zan iñor ari orduban
bizkar-egurra austeko?

13/ Erri txiki au menderatzeko
Jose-Maritarren griña,
Oriyon dauden arraunlariyak
badira oientzat diña,
gaizki esaka jardun dirade
guretzako alegiña,
lengo epurdikuak sendatzen
badaukate zer egiña.

(1) tosta = treñeruetako eser-lekua.

14/ Banderakuan egualdi txarra
goizetikan izugarri,
arratsaldian jokatuko zala
esan giñiyon alkarri,
Jose-Maritar oiek gelditu
ziran oso lotsagarri,
teatorako funtziorikan
orduban etzuten jarri.

15/ Donostiyako kaie onduan,
juan dan igande batian,
Kirikoren azañak kontatzen
arrantzalien artian,
gizon batek esan ziyen: "Egon
au aditu bitartian,
bandera bat besterikan ez du
ogei eta sei urtian".

16/ Bear ez diran kontuba franko
aditu da oiengandik,
paperetan aitzaki asko ta
jokatu nai ez iñondik,
emeretzi urtian bitan bestetan
ez degu galdu emendik,
Oriyon bada indarra eta
abildadia oraindik.

17/ Mapatik iya borratu zala
esaten digu erriya,
ori jarri zuana burutik
egongo zan elbarriya,
baña Oriyon dago bandera
pilla ikaragarriya,
ta urrezko medalla ederra
Biarriztik ekarriya.

18/ Emezortzigarrengo bertsua
oraiñ nua esatera,
nere kristabak, galdetze'izuet
gezurrik jarri ote da,
Donostiar da Zumayarentzat
orra nik kantak atera,
lenguen ordañak ikasteko
artu zazute papera. (2)

(2) *Bertso-papera*, moldiztegiaren izen gabea, Garro baserria, Guetaria.

Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea au ere, Usurbil'ko Egiluze baserriko bertso-bilduma.

(1922 edo 1923)

FERNANDO ARANBURU TA GAZTELU

Pello Saikolaren anai bat ere, Fernando Aranburu, bertsoan pixka bat egiten zuana zan. Gau batez, soldadu joan baño leen, oiean sartzean onela kantatu zuan:

Fundiziyuan ari naiz
Oriyon lanian,
ofiziyua ikasten
nere alegiñian;
etxera etortzen naiz
zortziyan beñian,
deskansatzera nua
oiaren gañian.

Ori esan da *rau!* oiean sartu zan. Gela berean lo egiten zuan bere anai Pellok, gogoan artu zuan bertso ori. Pello au da atal ontan jarriko ditugun bertso ta argibide guziak eman dizkiguna.

Fernando 21'ko kintakoa da. Ta Afrikara tokatu zitzaion. Emen gerra zan orduan, eta gerran ibilli bearra izan zuan. Ta andikan bertsoak bialdu zizkion Gazteluri:

1/ Abisu bat artu det
lengo egunian,
Batista, omen zaude
umore onian,
baita bertso batzuek
ipiñi nayian;
bialdu itzazu bada
ondradamentian,
estimatuko ditut
pozikan artzian.

2/ Zorionian sartu
giñaden Afrikan,
zorri ta eltxuaren
eztakau paltikan;
babarronik eztakau,
ain gutxi sopikan,
sekulan ez deu bete
goraño tripikan,
emen ez da arkitzen
arroza besteikan.

3/ Lutxa bat izan degu
moruen artian,
eta izendatzen det
Ceuta'ko partian;
goizeko seitako asi
giñan atakian,
ango tiro-soñuak
bonbakin batian!
zurra ederra artuta
juan giñan trotian.

4/ *Mil novecientos veintiunuan*
etorri giñan onuntza,
mil novecientos veinticuatruan
juango gera aruntza;
bitarte ortan galdu-betanik
zaitu bear deu gorputza,
gero amatxok emango al dit
txorizo eta arrautza,
bitarte ortan gure Jainkuai
eskatzen diot laguntza.

* * *

Ta Gazteluk bertsoan erantzun zion. Fer-
nandoren anaiak, Pellok, kopiatu zizkion.

1/ Afrika ortan dago Fernando
maitia det nik gogotik
tristura aundirik apenas dauka
soldadu egonagatik;
gerrara juanda ortxen zaude zu,
eztaukazu broman paltik,
orra bi bertso emen zuretzat,
a!, Gazteluren partetik.

- 2/ Zuek juanikan urtebete ta
bi illabete badira,
lendabiziko egin zenduan
Logroño'raño salida;
gero andikan Afrikaraño
gerra zebillen tokira,
gure Jainkuak osasun ona
eman deizula sikira.
- 3/ Leku primerakoa dala
aditzen degu Logroño,
trago ederrak eiten dituzte,
bai, or daudenak guk baño;
egun batian esperatzen det
irixtia orreraño,
egun arretan bete biar degu
ardoiz lepo-leporaño.
- 4/ Konfiantzarik asko, Fernando,
banun Saikolan zurekin,
al dan guztiya saiatuta're
badago naiko zer egin;
egun batian, pena nuela,
egin zenduen aldegin,
onezkero zer mouz konpontzen zera
Afrika aldeko morakin?

- 5/ Kintuak iñoiz permisua kin
etortzen dira etxera,
beren senide edo guraso
maitiak bisitatzera;
deskuiduan zu tamañ orretan
portunatatzen bazera,
urik gabeko sagarduaren
paltan izango etzera.
- 6/ Aizu, Fernando, emango'izkizut
bi edo iru abiso,
aurten sagardo balientiak
ere baditugu oso;
jeneral bati eska zaiozu
illabeteko permiso,
eskatutzeko ez dago lotsik,
emango dizu akaso.
- 7/ Aizu, Fernando, orra zuretzat
jarri orrenbeste bertso,
beste lan danak alde bat utzi
ta ortan jardun naiz atzo;
zugatik asko kupitzen gera
Gaztelu eta Alpontso, (1)
bisitatzera juango giñake
balin bazeunde onuntzo.

(1) Alpontso beren lagun bat zan.

(1925)

BERTSO BERRIYAK

AURTENGO ESTROPARI JARRIYAK

Estropada au 1925'ngo. Agorraren 6'an eta 13'an izan zan; bost treñeruk jokatuz zuten; onela gelditu ziran: aurrena, Orio; 2'gn.: Ondarrabia; 3'gn.: Pasai San Juan; 4'gn.: Donostia; 5'gn.: Santoña.

Bertso-paperak ez du Gazteluren izenik, bañan Errikotxia bertsolariaren billoba dan Orio'ko Andu baserriko Kristino Arruti'k, jarri aldi ontako zenbait puntu eman zidan, bertso auek Gazteluk jarriak zirala esanaz. Puntu oien bidez bertso-papera arkitu degu. Moldiztegiaren izenik ere ez du. Paperak saltzen, Orio'ko Antxiola ibilli omen zan.

1/ Milla ta bederatzireun da
ogei ta bostgarrenian,
aurreneko estropa izan da
Agorren seigarrenian;
danak gogotik saiatu dira
egun ortan arraunian,
Oriyotarrak orain dauzkagu
sasoirik ederrenian.

2/ Estroparako premiyo aundiyak
jartzen ditu Donostiyak,
egiñalian saiatzen dira
juaten diraden guztiyak;
danan aurretik etortzen danai
ematen zaizka graziyak,
galdutakuen miñikan ez du
izaten irabaziyak.

3/ Gipuzkoatik lau juañ ziran,
bostgarrengua Santoña,
premiyuakin apenas asko
onratu duen Montaña;
beren ustian arraunketan e
ikasiya dauke maña,
arako onak egongo dira,
emen galdu due baña.

4/ Estroparako abildadia
eta indarra da ona,
abonatzia gustatzen zaigu
danoi egindako lana;
premiyo asko irabaziya
Oriyok daduka sona,
erri batian zazpi bandera
ori da edertasuna!

5/ Pentsatzen zuen bezela ezta
gelditu Pasai San Juan,
oñaze aundiya artu du eta
edukiko du goguan;
nunbait patrioiak erretirua
artzeko asmua zuan,
salaio gabe etzan izango
bandera eraman bazuan.

6/ Kuadrilla orrek Oriyotarrai
egun ortan ziyon esan
txalupa pronto edukitzeko,
jokatzian artu zezan;
“guria zueiri emanda biyok
lutxa bear degu izan”
oiek bandera eramatia
aurten prezisua etzan.

7/ Ondarrabiyak kalterik eztu
lanteri ortan asiya,
bandera eder bat eramatia
orren desio guziya;
aurten atzetik ibilli zaizka
Donostiya ta Pasaya,
Oriyorikan juaten ez bada
laiste du irabaziya.

8/ Estropada ori jokatzeko
zorioneko Oriyo,
publikuari gustua franko
onezkero eman diyo;
juaten danian lana egitia
askotan gustatzen zayo,
orregatikan irabaziyak
dauzka orrenbeste premiyo.

9/ Festa-egunian zabaltzen dira
bandera oiek guziyak,
kanpotarrai're guztatzen zaizke,
ez al dira itxusiyak;
ezertan ere mantxik gabiak
ditugu irabaziyak,
edertasunez kontentu gera
Jaungoikuari graziyak.

10/ Aurten txalupa berriya eginda
etorri balitz azkarra,
jokatutzera etzan juango
lenago dagueen zarra;
sasoi batian Donostiarrak
esaten zuen kabarra,
oien kanuai irabazteko
oraiñdik ez dago txarra.

11/ Lana egiteko lekurik gabe
gizonik ezta proatzen,
malizi ori zer dan batzuek
asko ez due pentsatzen:
beren txalupak trukatu eta
gustora badira jartzen,
kostako zaio Oriyo baño
lenago bueltan etortzen.

12/ Zazpi bandera irabaziyak
beren premiyo ta guzi,
zabaldu eta bistan jartzian
ez due ematen itxusi;
nola diraden apartekuak
paperetatik ikasi,
askok egin du gastubagatik
etorri eta ikusi.

13/ Juan dan urtian San Juandarrak
oso gora ziran iyo,
dudarik gabe aurtenguan e
izango ziraden piyo;
ustez seguru zuten bandera
irabaziya Oriyo,
zezen gaixtua izanagatik
banderilla sartu diyo.

- 14/ Erri askotatikan jendia
estropan izan gerade,
batzuek pozaz egongo dira,
bestiak tristuran gaude;
duro ederrak egun oietan
aldatubak badirade,
Getariyako arbi-aziyak
aurten dantzatu dirade.
- 15/ Egun oietan jendia franko
estropan izanak gera,
premiyo onena uste zuten
batzuek Pasai aldera;
esaten zuten: "Bigarren aldiz
baldin jokutzen bagera,
aurten gureztat izango da
Donostiyako bandera".
- 16/ Gizon batzuek zerbait esaten
kaie aldian ai zian,
ta bestek erantzun ziyen
belarriyaren ertzian:
Orain bi urte Oriyotarrak
Pasayen onduan zian,
baña ala're San Juandarrak
gelditu ziran atzian.

17/ Oriyokuak lana galanki
aurten dirade egiñak,
lanteri txarrak ekartzen ditu
alkar ikusi eziñak;
Oriyotarraiki entierrua
len badirade egiñak,
arrezkerotik berak penatzen
ditu ipurdiko miñak.

18/ Arraunlariyak leku askotan
oraindik dirade bizi,
batzuek diralako estropa
ederra orra ikusi;
oinbeste azaña egin duenak
zerbait ez aldu merezi?
amar xentimo bertso berriak
nai dituenak erosi.

(1928)

BERTSO BERRIYAK

Onako bertso auk, bertso-paperetan publikatu zituan "Elustondo - Zarauz" moldiztegiak. Paperak ez du esaten egillea nor dan. Bañan, Orio'ko Arizmendi baserrian jaioa dan Jose Ramon Esnal'ek, Gazteluk 1928 urteko estropadari bertsoak jarri zizkala esan zigun, ta bai lenengo bertsoa eman ere. Bertso onen bidez arkitu genduan gero, etxean, Gazteluren bertso-papera.

1/ Milla ta bederatzireun da
ogei ta zortzigarrena,
bertso berriyak ateratzeko
dago gairik ederrena,
bi egunetan estropak ziran
kanpora eta barrena,
danak irabazita zer poza
aurten Oriyotarrena!

- 2/ Ondarrabitik desafiyua
bota zuten lendabizi,
paperetan nola etorri zan
askok genduen ikusi,
andikan laister Donostiyara
ditugu ekarri-azi,
lendabizikuan jokatzeko
ez ginduen jarri-azi.
- 3/ Jose Ugeunekin asiyak
apustura zerratzeko,
orrekin etzutela aiek nai
Txokolate ekartzeko,
Manterolak itza eman zuan
estropa ori jokatzeko,
orren premiya bazan erriyan
diru puska bat sartzeko.
- 4/ Orduan señalia bota zan
eta gañera jokua,
lau milla duro batel da arraun,
badala uste det naikua,
eta gañera trabesa franko
badegu egindakua,
oiek guziyak Manterola da
an irabazitakua.

- 5/ Inazio Manterola dago
arraun-lanian bikaña,
orrek ederki artutzen diyo
bere lanari tamaña,
orrelakuak leku gutxitan
orain daude alajaña,
aurrera ere sano bada orrek
egingo du askok aña.
- 6/ Txokolate eta Araneta
gogor abiyatu zian,
alkar ausi eziñikan biyak
oso biraje luzian,
baña Inazio Manterola
laiste zan gallen-antzian,
berrogei eta zazpi segundoz
an utzi zuen atzian.
- 7/ Arratsaldian herriz jokutzen
arraunketa ederrian,
oien artian zer gertatu zan
nago esan biarran,
Ondarrabitar ori piska bat
izanagatik aurrian,
Inaziok batel mantsuakin
segitu ziyon urrian.

- 8/ Ogei ta emeretzi segundoz
Manterolak irabazi,
ez dakiyenikan baldin bada
dezala ondo ikasi,
Txokolatek lan oiek eginda
graziyak ditu merezi,
arraun-lanian Ondarrabiko
Araneta dezu ausi.
- 9/ Manterola ta kontrariyua
daude orretan yayuak,
nolanai ez dirade egiten
orrelako aziyuak,
goiz-arratsalde egiñak dira
izugarrizko sayuak,
biyak dirade arraunlariyak
orretarako jayuak.
- 10/ Zer gertatu zan arratsaldian
nai nuke adierazi,
baxoko bapore bat txistuka
aguro zitzaigun asi,
aiengandikan orrelakorik
iñork etzuen merezi,
zer borondate daukaten oiek
ederki degu ikusi.

11/ Arraunlariyak egongo dira
Ondarrabiko partian,
bañan obiak azaltzen dira
Oriyotarren artian,
aurrera're guziyok pakian
erriyan izan gaitian,
berriz ere zerbait egingo da
indarra dan bitartian.

12/ Illaren ogeian izan dira
estropa arrigarriyak,
Oriyotarrak egin dituzte
marka ikaragarriyak,
premiyorikan onenak dira
egun ortan ekarriyak,
orrekin eztu kalte izango
San Nikolasko erriyak.

13/ Kontu politak badira emen
orain goguan artzeko,
zenbait gizonen oponiyua
beti diruba galtzeko,
baxo aldeko jende oriyek
daude guri bengatzeko,
medikurikan ezin billatu
lengo miña sendatzeko.

14/ Bertso bat orri ateratzeko
orain artu det idia,
treñerua ta batel ederrak
orrek egiñak badia,
enbargaziyo onak egiten
dauka abilidadia,
nun billatu gentzake beste bat
ori dan baño obia?

15/ Ramon Solaberrietak zuen
aurrenekua atera,
ta Makazaga urrengua zan,
gezurrik jarri ote da?
biyak ederki egin dute ta
ez nua gaizki esatera,
iñork nai badu onetatikan
emango diyot papera. (1)

(1) Bertso-papera, "Elustondo — Zarauz"; ez nuan kontuan artu zeñi jaso nion.

BERTSO BERRIYAK

Estropada au, 1930 urtean jokatu zan, Agorraren iru egun auetan: 7'an; 9'an, *regata de consolación* deritzaiona; 14'an ezin jokatu izan zan, oso itxaso txarra zegoalako, ta 16'garrenerako utzi zan *regata de honor* dalakoa. Sei treñeruk jokatu zuten, ta one-la gelditu ziran: aurrena, San Pedro; 2'gn.: Orio; 3'gn.: Getaria; 4'gn.: Pasai San Juan; 5'gn.: Donostia; 6'gn.: Oikina.

Oi bezela, bertso auek ere ez dute egi-llearen izenik esaten. Bañan Orio ta Aginaga aldeko bertso-zaleak jarri-aldi ontako bertso ta punturik asko eman digute, Gaztelurenak dirala esanaz. Ta, zorionean, bertso ta puntu oien bidez, bertso-papera arkitu genduan. Onek ez du moldiztegiaren izenik, eta ez nuan kontuan artu zeñi jaso nion.

BERTSO BERRIYAK

- 1/ Bertso berriyak orra ipiñi tokatutzen dan moruban, jendia sobra arrotu zaigu Oriyoko inguruban, orain orlako notizirikan esperatzen ez genduban, arrunka asko ta talentu gutxi Getariarren buruban.

2/ Aurten lenengo estroparctan
Donostin giñan jokatu,
danak dakite, bandera zaie
San Pedrokuai tokatu,
Oriyotarrak giñan bigarren
premiyuakin geatu,
orain Getariar oriyekin
zeñek bear du burutu?

3/ Sei txalupatik irugarrengo
premiyatu zan Getari,
azaña ori egin dutela
bada arrunka ugari,
ogei urtian beti atzetik
or dabil kuadrilla ori,
gerra ematen zer zabilzate
pakian daguenari?

4/ Arrautzen partez alimentuba
daukate lapa gordiña,
txalupa azkar eramateko
ez da jenero bikaña,
gabian amets egiten dute
bai ote diran gu gaña,
iruditzen zait orixen dala
oien ipurdiko miña.

5/ Getariarrak, zer zabilzate
Oriyorekin tirriyan?
a ze azañak eginda zauten
gure Kosta Kantabriyan!
arrunka gutxi egon liteke
kuadrilla arraunkariyan,
ogei urtian banderarikan
sartutzen ez dan erriyan.

6/ Ogei ez dira iristen baño
kunplituak emeretzi,
kasu orretan emango ditut
bi edo iru abertentzi:
oiek jokatu zuten bezela
orduban etzan lizentzi,
legiaz kontra eramana da,
etzenduten irabazi.

7/ Getari ortan beti badira
bi iru herri-jariyo,
zuen atzetik kasik apropos
ibiliya da Oriyo,
denbora junda pena izatiak
ez du askorik baliyo,
zuek añian gelditu gera
bandera eta premiyo.

8/ Amabi milla pezta giñuan
Donostiyatik ekarri,
gastubak egin gañerakuak
lasai partitu alkarri,
ondoren artan Bilbaun zituzten
berriz premiyuak jarri,
ara junda're Getariarrak
ibilli ditugu larri.

9/ Saiatutzeko aña bazan da
prebenituta jun gera
zerbait egingo ote genduen
ematen giñon tankera,
Getariarrak mutil listuak
baño Oriyok atera,
guretzat ziran lendabiziko
premiyua ta bandera.

10/ Bilbao ortan izandu degu
portuna izugarriya,
Oriyotarren konsuelua,
Getariako arriya:
iru milla duro premiyua ta
bandera gustagarriya,
lenguen kontra antxe daukagu
bedeinkatuta jarriya.

11/ Guk dadukagun bandera-pilla
ez dago oso tristia,
Getariarrai kostako zaie
marka ori iristia,
aurten ere bi: bat Bilbautikan,
Tolosatikan bestia,
erri batian Oriyon aña
iñon egongo eztia.

12/ Utsa onenak izan balira
estroparako trantzian,
arraun-lanetik interes gutxi
sartutzen dute etxian,
amarretatik bederatzitan
gelditzen dira atzian,
lenago ere bagiñakigun
Getariarrak zer zian.

13/ Denbora pasa letu'itzazute
Oriyoko abisuak,
gutxiyagorik ez du merezi
persona desairosuak,
guk oraindikan sano dauzkagu
bai oñak eta besuak,
birtute ori guarda deigula
Jaungoiko amorosuak.

14/ Geren tokian ondo genden gu,
zer zabilzate tentatzen,
zeren burubak gora iyuaz
guri bertsuak kantatzen?
ezer motibo geiago gabe
kristaurik ezta mintzatzen,
errespuestik izango zanik
ez al zenduten pentsatzen?

15/ Besterik autan ez degu artzen,
esandakuak bakarrak,
merezi ere bazuten eta
orra ordañez ederrak,
ez gaitu asko ikaratutzen
oien desaire eta parrak,
umiltxiago ibili zaitezte,
adios, Getariarrak!

EZKONTZA GALDUA

Onako bertso auek Errikotxia bertsolariaren alaba dan Maria Josefa Lertxundi'k esan dizkigu. Ezkontza galdutako sail luze bat omen zan. Zoritxarrez, ez degu kanta-paper ori iñon ere arkitu.

Nere graziya Juan Antonio,
Frantziska Antonia zuria,
egun batian artu genduben
esposatzeko idia;
garai artan ni nitzan zuretzat
usai gozoko loria,
esan biar det zer izandu dan
despatxatzeko bidia.

Egun batian bide batian
biyok giñaden juntatu,
zer pasatzen zan galdetu niyon,
ez nintzan oso kontentu;
berak biartu nindubela ni
zertako nuen kontatu?
zerbait aitzeki biar zuben ta
gezurra ori plantatu.

Beste bertso batek onela zuan bukaera:

Mingaña legun ibilli arren
kariño fiña atzera,
itxura zerbait badezu haña
alaja piña etzera.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: SAGARDOAREN GRAZIYA (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: GABON, AU OSTATUBA!, ANTON KAIKU. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi, S.I.*: EUSKAL MUTILLAK AR-METAN, I.
4. *Pepe Artola*: USTEZ LAGUNA DETAN.
5. *P.M. Urruzuno*: EUSKALERRITIK ZERURA.
6. *T. Alzaga*: RAMUNTXXO (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: GALTZAUNDI.
8. *A. Apaolaza*: PATXIKO TXERREN.
9. *B. Iraola*: OROITZAK.
10. ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962) (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: BORDAXURI (*Aitua*).
12. *Bilintx*: BERTSO TA LAN GUZIAK.
13. *M. Izeta*: DIRUA GALGARRI.
14. *P. Larzabal*: IRU ZIREN.
15. EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. *A. M.^a Zabala*: GABON GAU BAT.
17. *A. M.^a Labayen*: MALENTXO, ALARGUNI!
- 18-19. *A. Zavala, S.J.*: TXIRRITA. (*Aitua*).
20. *F. Goñi, S.I.*: LURDESKO CERTAERAK.
21. *P. Larzabal*: HERRIKO BOZAK edo NOR AL-KATE.
22. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK.
24. *F. Imaz*: BERTSO GUZIAK.
25. *A.P. Iturriaga*: JOLASAK.
26. *A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir*: PERIYAREN ZALAPARTAK.
27. AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. *B. A. Moguel*: IPUI ONAK.

29. *T. Alzaga*: BURRUNTZIYA.
30. *G. Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *M. Elicegui, A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN BIZITZA.
33. *M. Elicegui, A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *P. Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *A. Cardaberaz, S.I.*: EUSKERAREN BERRI ONAK.
38. *S. Salaverría*: NERONEK TIRAKO NIZKIN.
39. AMAR URTEKO BERTSO-PAPERAK.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: LARDASKETA.
42. *Uztapide*: NOIZBAIT.
43. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: HILLA ESPOSATU.
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: BORDEL BERTSULARIA.
47. *P. M. Urruzuno*: IRU ZIRI.
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: TEATRO ZAARRA.
- 49-50. *A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN ITZALLA.
51. *P. M. Urruzuno*: UR-ZALE BATEN IPUIAK.
- 52-53. *G. Anduaga*: BERTSO-BILDUMA.
54. *A. Zavala S.J.*: PERNANDO AMEZKETARRA BERTSOLARIA.
55. *Basarri*: LAUGARREN TXINPARTAK.
56. *A. Zavala, S.J.*: UDARREGI BERTSOLARIA.
- 57-58. *C. Beobide, O.F.M.*: ASIS'KO LOREA.
59. *A. Zavala, S.J.*: AXENTXIO TXANKA BERTSOLARIA.
60. *A. Zavala, S.J.*: ERRIKOTXIA, ITXASPE ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala, S.J.*: GAZTELU BERTSOLARIA.

